

# uk

213. zenbakia / 2012ko maiatzaren 8a



# URTERO 20€

**Urtero** UK aldizkariaren 20 zenbaki  
**Urtero** Uribe Kostan gertatzen denaren berri  
**Urtero** eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean  
**Urtero** argazki zahar eta barriak  
**Urtero** zure proiektuak lau haizetara  
**Urtero** 20 euro



[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)



neuk ere gura dot

**Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtero 20 euro.**

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

## Dacia Sandero

5.790€<sup>1</sup> tik hasita



## Dacia Duster

10.400€<sup>2</sup> tik hasita

**URTEBETEZ<sup>3</sup> ASEGURUA DOAN**



**Dacia España** **Dacia ESP**

**3 URTEZ<sup>4</sup> BERMEA EDO 100.000 km**


[www.dacia.es](http://www.dacia.es)

**Dacia Sandero:** Kontsumo mistoa (l/100Km) 4,0tik 7,3ra. CO<sub>2</sub> isuria (gr/Km) 104tik 169ra.  
**Dacia Duster:** Kontsumo mistoa (l/100Km) 5,0tik 8,0ra. CO<sub>2</sub> isuria (gr/Km) 130tik 185era.

**BILBO BERRI** Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. Devustu - Bilbo  
**LEIOA BERRI AUTO** Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

### UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta Elkarte  
**HELBIDEA:** Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO  
 e-mail: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337  
**ZUZENDARIA:** Irantzu Sagarrinaga  
**ERREDAKZIOA:** Zuberua Iturburu, Julen Nafarrate, Nere Gijarubia, Irantzu Sagarrinaga  
**FOTOGRAFIA:** Asier Mentxaka  
**TESTUEN ORRAZKETA:** Ziortza Vega  
**KOLABORATZAILEAK:** Jorje Perez, Bittor Egurrola, Fredi Paia, Armando Llamasos, David Crestelo Kres, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte  
**MARRAZKILARIA:** Dogan Gozel  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Erika Martinez (944 911 337)  
**FILMAZIOA:** Laster Grafika S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00  
**ISSN:** 1576-6799  
 © Boluntzarreta



#### ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

 <b>Getxo</b> UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua	
 <b>Leioa</b> UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 BERANGOKO UDALA
 Erandioko Udala	 Sopelana Udala
 Urdulizko Udala	 Plentziako Udala
 Bizkaiko Foru Aukundia Diputación Foral de Bizkaia Kultura Saldia Departamento de Cultura	

## Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Graffiti Galeako Fortean.
6. FACEGUK. Aldundiak diru-laguntza handia emoten dio Athletic-i?
7. LEHEN ETA ORAIN. Berango.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Heliodoro Elorrieta.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

#### SAKONEAN

26. ALBUMA. Biribiguneak.
28. ARGAZKIA. Villabotas baserria.
30. BERBETAN. Iratxe Azkue (LAB).
34. FOTOGRAFIA. Takolos Elkarte.
40. SAKONEAN. Eulalia Abaitua, argazkilaria.

#### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. *Gazta zati bat* dokumentala.
43. MUSIKA. Johnny Cash-i omenezko diskoaren aurkezpen jai.
44. LIBURUAK. ArgiHizkiak lehiaketa.
45. KIROLA. Victor Bilbao, Plentziako Pelotazale Lagunartekoa.
46. ELKARRIZKETA. Lourdes Herrasti, Aranzadi Zientzia Elkarte.

#### AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Pizza-pintxo.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Udondotarrak Gobelan, 1969-11-15.
54. AITORMENAK. Miren Gojenola.

Azala: Takolos Elkarte


[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)



30 Iratxe Azkue

#### Berbetan

Eskumaldea esparruko LABeko arduraduna da Erandion jai eta Lemoizen bizi den sindikalista.



11 Heliodoro Elorrieta



54 Miren Gojenola

## aldizkaria etxean jaso gura baduzu

### HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....  
 Kalea/zenb..... Herria.....  
 e-mail.....  
 Telefonoa..... Mugikorra.....

**Urtero**  20 euro  30 euro  50 euro  
 beste kopuru bat ..... euro

**Kontu zenbakia (20 digito)**  
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□

**Iritzia**

Hainbatetan parte hartu du Fakun Aznarez argentinarraren euskaldunak orrialdeotan, eta daborduko UK-ko kolaboratzaile estimatutzat dugu. Oraingoan, Argentinan oraintsu egindako YPF-ren nazionalizazioa dela-eta galdezka joan, eta horra:

# Kamiseta jantzi dut!

**Aitortu** behar dut ez dudala inoiz erosi (ezta jantzi ere) futbol-kamisetarik; nahiz eta futbola gustuko dudana, kolore liluragarrien atzean, enpresa pribatu edo herri zapaltzaileen interesak irudikatzen ditudalako betidanik. Horregatik nahiago izan ditut musika talde, irratilibre edo internazionalismoarekin zerikusia duten lemadun kamisetak, gizartearen aurrean etengabe aldarrikapena zabaltzeko aukera ematen dutelako.

Futbola, herriarentzako droga dela uste dut, eta jakina da droga guztiek, bakoitzak bere neurrian, gorakadak eta beherakadak eragiten dituztela. Sentimendu kontrajarriak ditut "kirol" honen inguruan. Argentinako diktaduran militarren torturak, desagertzeak eta sarraskiak 1978ko Munduko Koparen garaipenak gizartearen aurrean nola estaltzen zituen gertutik ikusi nuelako.

Baina bizitzak sorpresak ematen dizkigu, eta Olentzerok ezustean harrapatu ninduen iaz, Argentinako futbol selekzioko kamiseta ekarri zidanean. Hasieran, lau urtean behin, Munduko Kopak irauten duen egunotan, jantziko nuela pentsatu nuen, baina oker nembilen, egun burujabetasun-ikur bihurtu baita, Argentinako presidente den Cristina Fernandez de Kirchnerrek, Yacimientos Petroliferos Fiscales (YPF) enpresan interbentzioa burutu eta nazionalizatzeko plana iragarri zuenetik.

Hautsak harrotu zituen albisteak itsasoa-ren alde honetan, eta Espainiako komunikabide guztien ahotan egon da kontua. Madrillgo gobernu-bozeramaileen ahotan hitz gakoak gertatutakoa definitzeko hauek: "lapurreta", "sakeo", "injustizia", "expolio".

Nork eta hartz mozketari eta elefante inguratuaren ehiztariaren erresumak esan behar. Genozidioa eta lapurreta egin eta 519 urte eta gero entzun beharrekoak. Baina horiek ez dituzte kontuan hartzen Espainiaren komunikabideetan, zeren oraindino badirudi esker-tu beharko diegula gu "aurkitzea".

Amaitzeko, hango lagun batek kontatu-



takoa: Irrati-kazetaria da bera eta joan den astean Argentinako Parlamentuan egokitu zitzaion lan egitea. Bertan orduak eman zituen Estatu espainoleko komunikabideen korrespontsalekin, eta azken hauek helburu zuzena zutela argi geratu zen lehenengo momentuan: YPF-ren nazionalizatzearen kontrako iritzia bildu behar zutela. Esku hutsik geratu ziren, ez kalean, ezta kazetarien artean ere kontrako iritzirik ez baitzu-

ten jaso. Baina laguna haratago joan zen eta auziaren inguruan berak zer pentsatzen zuten galdetuta kanpoko kazetariari tinko erantzun zion: *"Erantzun dizut, baina lehenago Rajoy-ren gobernuak hartu dituen neurri ekonomikoak zer iruditzen zaizkizun esaten badidazu"*.

Kalera noa, kamiseta soinean. ○

**Fakun Aznarez**  
(Kazetaria)

## gu geu

# Gero ez dadin bego izan...

Lehenengo, Plazako gure txoko honetan bi hilean behin hainbeste gozatu ditugun eta gure zenbait jakinmin ase duten artikulu-sortzaile David Crestelo *Kres*-i, bihotzez, eskerrik beroenak emon eta "laster arte" esan gura genioke; berandu baino goiz espero dugulako, barriro ere, besteak beste, Plasentia Butro Museumoko arduradunaren berbak eta (h)istorio/a interesgarriak orrialde honetan irakurtzeko aukera izatea. Bueltara arte, *Kres!* Bitartean, eutsi goiari!

Gero, geuk ere eutsi beharko diogu, hobeto esanda, eusten jarraitu beharko dugu... Hamabostero-hamabostero UK egiten jarraitzen dugulako, hamabostero-hamabostero UK etxe, kiosko, taberna eta gune publikoetan dagoelako; osterara, horretarako, UK argitaratzeko beharrezkoak ditugun baliabide ekonomikoak ez ditugu *"jacobehardirenero"* jasotzen, epeak luzatzen doaz eta eusten gaituen soka hainbeste tenkatzearen ez ete da... Eztenkadetan gordinkeriari aurre egin guran, sastadak saihestuz, eta erabaki latzenak gaurko baino biharko utzi guran... Gura baino gehiagotan geure nahigabeen eta bihozminen bokale bihurtu den txoko honetatik, halere: hurrengora arte!

**UK-ko lan-taldea**




GALEA, 2012KO APRILIA

**Artelanak... /** Benetako artelanak dira margoketa eta graffiti asko. Gure herrietako mila pareta eta txoko edertzen dute, mural modukoak, kolorez betetakoak, e.a. Enkarguz eginak batzuk, isilpean eta baimen barik besteak. Baina, egia esan, denak ez dira izaten horren politak eta ederrak. Batzuen aburuz, egokiak dira, paretak apaintzeko aukera polita; beste batzuen iritziz, zikinkeria hutsa... nork daki! Hona hemen topatu dugun azken graffiti, Galeako Fortean. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor dezaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

# Zer deritzozu Aldundiak diru-laguntza handia emotea Athletic futbol taldeari?



Sopela

**Gemma Martinez**

> ikaslea

Ez nekien ezer horri buruz, baina berez, txarto iruditu behar. Hezkuntzatik ere aurrekontua murrizten badabil-tza, ez zait iruditzen ondo kirol horri ematea. Daborduko, gure poltsikotik ateratzen den diru mordoa mugitzen du hark, beraz, ez dut uste beharrezkoa denik gure horrenbeste diru ematea.



Algorta

**Lucia Gisasola**

> irakaslea

Txarto derizot, sekulako murrizketak egingo dituztenean osasun eta hezkuntzan. Ez nator bat "erlijio" kutsuarekin. Pozik nago irabaztearekin, baina nazionalismo kutsuagatik. Zergatik ez Ertzaintzari eman, bere burua hobeto prestatu eta, adibidez, ez kargatzeko kargatu behar ez duenean?




Leioa

**Fernandez**

> ikaslea

Athletic, klub pribatua izanda, kudeaketak euren kabuz izan beharko luke, ez nator bat neurri horiekaz, izan ere, Aldundiak denon zergetatik hartzen du dirua. Nire zergetatik sortzen badira laguntza mota hauek, nire esku-bidea ere bada erabakitzea nora doan nire dirua.



Algorta

**Santi Valle Brao**

> langabetua

Oso txarto derizot hainbeste gas-tatzea horretan. Euren lanak ez du ematen hainbesterako, lauri ematen dio dirua. Beste beharretan banatuko nuke: eman diezadatela niri, 18 hilabete daroat langabezian. Eta zelai barria ordaindu behar! Zergatik ez dituzte banatzen irabaziak, baldin eta badituzte...



Algorta

**Olatz Fontan**

> ikaslea

Ez dut kirol hori gustuko, ardiak bezalakoak gara futbolagaz. Diru asko bideratzen da futbolera eta ez dauka zentzurik krisi garai honetan. Denek jantzen dute Athletic-en kamiseta Petronor multinazionalaren propaganda-gaz. Independentziaren alde eta gero Petronor? Ez derizot ondo.



Plentzia

**Julia Gonzalez Lopez**

> Tai-txi irakaslea

Oso txarto. Beste gauza asko dago, eta oso interesgarriak. Beharra ere badago bestelako alorretan gure burua formatzeko. Kirolei ez nieke emango horrenbeste garrantzia; kirolak pertsona moduan hezteara ere landu beharko luke, bestela, inora ez daraman lehia da.



[lehen]

MANOL RODRIGUEZ 'MASTIGANE' KUTZITAKO ARGAZKIA



[orain]

ASIER MENTXAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / BERANGO

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

### uribitakora >



Berango, 2012ko martxo

Testua: **Inazio Vidal** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: Arratsaldeon lehendabizirik

Aurten negua euri (e)ta hotzez pasa da besteak beste, horrelako(e)tan bufandak ere ipintzen hasi gitezke; baina argazkian dauden zuhaitzak ezberdin ikus daitezke; hauek biluzik egoten dira udaberriaren eske.

Eguraldiak eman ohi ditu horrenbeste gira-bira, eta neguak beti galtzen du kolorearen distira... baina jadanik udaberria koloretsu iritsi da; eta zuhaitzak aldi berean hosto berdez jantzten dira.

Beraz zuhaitzak udaberriaren egoten dira hobeto: egun eta gau haien hostoen kolorearen menpeko. Baina halere udaberria amaitu ohi da tarteko, eta heldu da eguna berriz hosto denak erortzeko.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)



Ekainaren 2an izango da finala

### bertsolaritza > eskualdeko kanporaketak

**Bizkaiko Bertsolari** Txapelketara begira, hasi dira daborduko mikrofonoak berotzen. Lehenengo eta behin, eskualde mailako kanporaketak egingo dira, eta uribekostarrek badituzte hitzorduak: maiatzaren 11n, Itzubaltzeta gaztetxean 20:30ean egingo den bertso-afarian Peio Arondo, Arrate Illaro, Itxaso Paia, Daniel de Miguel, Arkaitz Gomez eta Josu Landeta lehiatuko dira; maiatzaren 18an Ba-

rrikako Nagusien Etxean, 20:30ean presatuko duten bertso-afarian Imanol Uria, Aitzol de Castro, Iñigo Kortazar, Pello Etxebarria, Gabi Basañez eta Ekaitz Larrazabal "Katxo" arituko dira. Kanporaketa bi horietatik lehenengo postuetan lotzen direnek ekainaren 2an, 17:30ean Algortako Villamonte Kultur Etxean egingo den finalean jardungo dute. ◊

Info+: [albegetxo@gmail.com](mailto:albegetxo@gmail.com)

### hitzaldiak > konkistaren 500. urteurrena

**"Nafarroa:** Konkistaren 500. urteurrena" gaiagaz maitzean hainbat hitzaldi eskainiko dituzte Villamonteko Kultur Etxean. Ekitaldiaren antolatzaile den Bolibartar Ikaskuntza Elkarteak Getxoko Udalaren eta LN-ren (Pro Libertate Nabarra) laguntza jaso du. Lehenengo hitzaldia dagoeneko Eneko del Castillok emon du; bigarrena, "Nafarroa bizirik 1512-2012", hilaren 10ean (19:00) eskai-

niko du Patxi Abasolok; hirugarrena, "Nafartasuna hedatu arte ez da konponduko euskal arazoa" izenburuagaz, hilaren 22an (19:00) emongo du Gorka Palaziok; azken aurrekoa, Aitzol Altunak eskainiko du "Bizkaiaren sorrera" goiburua-gaz, hilaren 24an (19:30); eta azkena, Tomas Urzainquiren "Continua la conquista" izango da, hilaren 29an (19:00). ◊

Info+: [www.bolibar.org](http://www.bolibar.org)



Berbaldiak hilaren 10, 22, 24 eta 29an izango dira

### arabatakada > maiatzaren 11n

**"Euskal Herriak** euskal unibertsitatea" da aurtengo Arabatakadaren goiburua. Jaialdia hilaren 11n egingo da Gasteizko Mendizabalan. Beste unibertsitate eredu baten aldeko jaia antolatzen dutenek diotenez, "Unibertsitateak herritarren eskalduntzeari erantzuteko, justizia soziala lortzeko, ingurumenarekiko begirunea izango duen lurralde antolaketa bultzatzeko, jendarte eredu patriarkala inauli eta

parekidetasuna lortzeko, bezkuntza jendarte eraldaketarako agente aktibo bilakatzeko, gure herriaren egituraketa soziopolitikoan laguntzeko... izan behar du eta horretan gabiltza". Hasteko, 10:30ean, ikasleen arteko olinpiadak egingo dira, gero Mendizabalaraino kalejira, herri-bazkaria eta 16:00etan Bertso Hop ikuskizuna, amaitzeko, kontzertuak: Gose, Hesian, EH Sukarra, Kaotiko eta Betagarri. ◊



Azken aldian legez, Mendizabalan egingo da

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia




DESKARGATU DOAN EUSKERAZ  
[www.cianoplan.es/baliabideak](http://www.cianoplan.es/baliabideak)

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763  
[www.cianoplan.es](http://www.cianoplan.es)



HOTELA



Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa

...harria      ...lehengo garaiak...      ...itsasoa

[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com) / [info@siazgetaria.com](mailto:info@siazgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143



# Hurrengo irabazlea: zeu!

**Gidabaimena euskaraz**

"Gidabaimena euskaraz" kanpaina, Getxoko, Erandioko eta Uribe Kostako Mankomunitateko udaletan jarri da martxan, herriotako autoeskolen laguntzaz. 2011n, **48 ikaslek egin zuten azterketa euskaraz** kanpaina zabaldu den herrietan. Getxon, Erandion eta Uribe Kostan 28 gaztek gainditu zuten euskarazko proba.

Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen dutenek Europan zehar trenez bidaiatzeko zozketa batean parte hartzen dute. **2011koa ere getxoztar bati egokitu zaio saria, Gorka Saitua La Torre gazteari. Zorionak!**



"Lehen ez zegoen txaletik, Institutua sasiz inguratuta zegoen: ortua genuen patioan, untxi eta guzti!"

## Heliodoro Elorrieta > Aixerrota Institutuko beharrari, agur!

**Institutura** sartu orduko bertatik urteteko irrikan egon ohi dira ikasleak; gustuko duten ikasketak hasteko edo beste barik, testu-liburuei agur esan eta lan munduan sartzeko... edo behintzat saiatzeko! Baina Aixerrota-Getxo 3 Institutuan bada 30 urtez bertatik urten ez denik ere. Ez gara errepikatzaileez ari, bertan eskolazain ibili den algortarraz baizik: Heliodoro Elorrieta. Institutua eraiki bezain laster hasi zen bertan, bedel: *"Dana guk montatu genuen: arbelak eseki, aulkiak eta mahaiaik jarri..."*. Aixerrota bere lantokia izateaz gain, bere etxea ere izan da hiru hamarkadatan: *"Lehen ez zegoen txaletik, Institutu guztia sasiz inguratuta zegoen: ortua genuen patioan, untxi eta guzti!"*. Institutuan gaztez inguratuta bizitzea ondo eroan du Heliodorok: *"Beti izan dut harreman oso ona gazteakaz. Lehen ikasleen izenak ezagutzen nituen, baina Institutua mila ikasle izatera heldu zen! Lehen ikasle gehiago zegoen, eta irakasle gutxiago..."*. Getxo 3-ko beteranoa izan da, eraikinaren zirrikitu danak ezagutu dituena...: *"Argiagaz edo bestelako arazoren bat zegoenean, beti etortzen ziren niri galdezka"*. Izan ere, Aixerrota bere etxea legez ezagutzen du. Apirillean, baina, jubilazioa hartu zuen Heliodorok, beharra eta ondorioz bere etxea izan denari agur esan die: *"Jai ederra prestatu zidaten... 50 irakasle baino gehiago etorri ziren!"*.   
 ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

# Euskara: jakin arren erabili ez

Getxoko euskal hiztunen kopurua handituz doa, Euskara Zerbitzuaren azken azterketa soziolinguistikoaren datuen arabera; erabilerari dagokionez, barriz, oso gitxi egin da aurrera

Euskara hiztun-kopurua gora doa Getxon, baina Euskara Zerbitzuaren azken neurketaren arabera, erabileraren gorakada ez doa horren azkar. Ildo horretan, hizkuntzaren ezagutzaren eta erabileraren arteko tartea murrizteko helburua izango du datorren III. Euskara Plan Nagusiak.

Hirugarren azterketa soziolinguistikoaren ondorioak eman ditu aditzera Udalak; Euskara Zerbitzuak burutu du azterketa. 2010ean 81.626 pertsona zegoen erroldatuta Getxon. 2006ko EUSTATen azken datuen arabera, getxoztarren %29 euskalduna da, %27 ia euskalduna eta %44 erdalduna. Horrek esan gura du bi urtetik gorako 23.000 getxoztar direla euskaldun; hots, azken 25 urteotan euskaldunen ehunekoak nabarmen egin duela gora: 1981ean %9,9 zen, baina 2006an %29. Gainera, beste bi urte neurtu ziren tarte horren barruan, 1996 eta 2001. Lehen horretan, 1996an, euskaldun kopurua %19 zen; ia euskaldunena %28 eta erdaldunena %53. 2001ean, barriz, euskaldun kopurua %20 zen, ia euskaldunena %31 eta erdaldunena %49. Gaur egun, 24 urte edo gutxiagoko getxoztarren %60 da euskalduna.

Beste kontu bat da, ostera, euskararen erabilera, izan ere, oraindino eskasa da gure udalerrian. 2010ean euskararen erabileraren azken neurketa burutu zuen Udaleko Euskara Zerbitzuak, eta hizkun-



Batez ere, umeakaz berba egiteko erabiltzen da euskara

tzaren erabileran aurrera egin bada ere, "euskararen presentzia oraindino eskasa da oraindino Getxoko kale-bizitzan", udaliturrien esanetan. Zehazki, neurketan entzundako pertsonen %9,2 ari zen euskaraz; kopuru hori 1994ean %2,8koa izan zen eta 2001ean %4,8koa.

**"Duela 25 urte getxoztarren %9,9 zen euskaldun, 2006an %29; baina %9,2k besterik ez du erabiltzen"**

Gainera, batez ere, umeakaz berba egiteko edota euren aurrean erabili ohi da euskara: neurtutako kasuen %65 umeen eta nagusien arteko hizketaldiak izan ziren, %18 nagusien artekoak eta %17 umeen artekoak.

Irakaskuntza-ereduei dagokienez, 18

urtetik beherako ikasleen %28k A erduan ikasten du, %24k B erduan eta %47k D erduan. Datu horietan aldaketa gitxi gertatu da azken urteotan, baina duela 20 urtegar alderatuz gero, aldaketa nabarmena da: 1990ean %70ek ikasten zuen A erduan, %10ek B erduan eta %19k D erduan.

Arlo horretan, etorkinen artean, euskaraz gehiago ikasten da txikieneen kasuan: horrela, ikasten duten etorkinetatik, Batxillergoa D erduan egiten du %1ek eta DBH %0,4k; baina, lehen hezkuntzari dagokionez, euskaraz egiten du %18,4k eta haur-hezkuntza %36,9k.

Gauzak horrela, ezagutza eta erabileraren arteko aldea murrizteko asmoa izango ei du Udaleko III. Euskara Plan Nagusiak, eta ekarpenak jasotzen ari dira. ○

## Toponimia ibilbideak

barrero gurean, maiatza, ekaina eta udazkenean



Boluntzarreta errotatik igaroko da ibilbideetako bat, Fadura aldean

Getxo ezagutzeko ibilaldiak egiten dabilta azken urteotan eta, oraingoan ere, horiakaz gozatzeko aukera izango da. Aurten, gainera, bi txandatan egingo dituzte ibilbideak, bata maiatza eta ekainean, bestea udazkenean (urrian eta azaroan). Gidari baten laguntzaz egingo dira, eta euskaraz, jakina; urtero legez, gidariaren hizkuntza maila entzuleen mailara egokituko da.

Sei ibilbide prestatu dute, ordu eta erdikoa bakoitza eta, toponimiaz gain, herriko ondarea ezagutzeko oso egokiak izango dira. Lehenengo eta bigarren ibilbideetan betiko Getxo ezagutuko dute: Andra Mari eliza, Saratxaga, Arteaga, Azkorri eta Diliz inguruak.

Hirugarren ibilbidea kostaldetik joango da: Portu Zaharretik urten eta Aix-

rrotaraino, Etxetxu, San Nikolas eliza, Jeneratxu, Usategi eta Landenetik igaroko da. Laugarren ibilbideak Fadura ingurua bisitatuko du: Gobela ibaia, Boluako padura, Boluntzarreta errota, Lexarreta-Larrañazubi eta Baserri.

Azken ibilbide biek, barriz, Getxo "barria" zeharkatuko dute. Biak urteongo dira Karmen elizatik, Negurin. Lehena Algortaraino joango da Atxekolandeta eta Ereagatik, eta bigarrena, Bizkaiko zubiraino iritsiko da Atxekolandeta, Bola hondartza eta Zugatzartetik.

Ibilbideetan parte hartzeko oso erraza da, ondokoa besterik ez duzu egin behar: [getxo.toponimia@gmail.com](mailto:getxo.toponimia@gmail.com) helbidera mezua bidali edota 688 635 350 zenbakira deitu. Ikastetxeek eta euskaltegiek ere taldeka parte har dezakete. ○

## EMON IZENA UDAKO KIROL IKASTAROETAN

Getxo Kirolak-ek udako ikastaroen eskaintza atera du eta parte hartzeko izena emotea dago maiatzaren 16ra arte. Epe hori amaituta, maiatzaren 18an, zozketa egingo da jendaurrean eta plazak automatikoki esleituko dira. Halere, zera izango da kontuan: eskaera egotekotan, pertsona bakoitzak ikastaro bakarrean eman ahalko duela izena. Mendi-ibilaldiak, tenis, padel, haurrentzako kirol ekintza edota igeriketaz lotutako jarduerak eskainiko dituzte. Informazio gehiago daukazu Fadura kiroldegian (94 430 80 70), Gobelakoan (94 404 51 51) eta [getxokirolak.getxo.net](http://getxokirolak.getxo.net) webgunean.

## GOBELAKO EGITASMOA AURRERA ERREKAGANEN

Gobela ibaia Errekagane inguruan birbideratzeko proiektua onartu egin du Uraren Euskal Agentziak, azkenean, eta 14 milioi euroko aurrekontua dauka. Hurrengo fasean hainbat lursail desjabetuko ditu Getxoko Udalak; lanak 2014ko udarako amaitu gra dituzte. Leioako etorbidearen eta Valdesko gainezkabidearen arteko eremuan gauzatuko dituzte lanak, "uholdeen arriskua saihesteko", izan ere, Gobelaren bide barriak 14 metro arteko zabalera izango du lanak amaitutakoan, oraingoak baino 3 metro gehiago.

## GETXOKO PARKERIK HANDIENA NEGURIN

Gernika parkea inauguratu dute Neguri behekaldean, Getxoko handiena: 12.997 metro koadrogaz. Besteak beste, parkeak dauka: kirol askotarako esparrua, 350 metro koadrokoa; umeentzako jolaslekua, 345 metro koadrokoa; eta ambigü delakoa, 90 metro koadrokoa (egoteko esparrua da eta lehen gunea eta kirol askotarako alderdia banatzen ditu). Gainera, 5.460 metro koadroko berdegunea dauka, arbolak: aritzak, arteak, pagoak edota fruta-arbolak. Gune bi ere egokitu dute sasoiko loreak landatzeko. Parkean 2.760.000 euro inbertitu da, hasieran uste baino 240.000 euro gitxiago.

 **naturlan**

**Lorezaintza**  
zerbitzu orokorrak

Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algorteros  
"Amumak"

Asteazken poetikoak  
Itsas Fundazioa  
Euskara eta Algortako izenak  
Alzheimer, 3. Adina, Boluntarioak

<http://www.algorta.org>  
<http://amumak.getxo.net>  
e-mail: [sotaventoster@gmail.com](mailto:sotaventoster@gmail.com)  
Móvil: 656773080


**Garaizar**  
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 962 977 • [regaraizar@euskalnet.net](mailto:regaraizar@euskalnet.net)  
Ileeta kalea 1 • ALGORTA

**Gorka Aurre** > Prakagorri enpresako zuzendaria

## “Irakurketa azkarraren metodoaren bitartez laukoiztu egin daiteke irakurtzeko abiadura”



Getxoko epaitegiaren aurrean daukate lokala Prakagorrikoek

**Itzulpengintzan eta euskararen irakaskuntzaren arloetan espezializatuta daude Prakagorri enpresako lagunak eta, gainera, garapen intelektualerako eta emozionalerako eraginkorrak diren metodoak irakasten dituzte: memoriaren garapena eta kontzentrazioa, ikas-metodo aurreratuak, oratoria eta idazkera egokia, ulermen irakurketa azkarra, e.a. Bereziki deigarri gertatu zaigu azken hori, eta eurengana jo dugu zertan datzan eta eraginkorra den galdetzeko. Gorka Aurre Prakagorriko zuzendariak ase du gure jakinmina.**

—Arlo bi lantzen duzue Prakagorri.

—Bai, bata da garapen intelektuala, bestea itzulpengintza. Lehenengoari dagokionez gure helburua da baliabide naturalak edo intelektualak era eraginkorrean erabiltzen irakastea: irakurketa azkarra, memoriaren garapena, ikas-metodo aurreratuak, mapa mentalak, e.a. Gainera, oratoria ere lantzen dugu; garrantzitsua da, izan ere, norberak dakiena besteei adierazten ez badaki, dakiena baino gutxiago balioesten du. Umeek zein nagusiek parte har dezakete ikastaroetan, ba-

koitzak bere interesa eta arazoak dauzka. Itzulpengintzari dagokionez, itzulpen-zerbitzua eskaintzen dugu.

—Ikastaroak non ematen dituzue?

—Ikastetxeetara joaten gara askotan, baina gure lokalean ere egiten ditugu, ikasleak etortzen zaizkigu. Nagusiak normalean banaka etortzen dira, on-line ere egiten dute, eta gazteak talde txikiren bat osa dezakegu.

—Bereziki deigarria da irakurketa azkarrerako metodoa, zelakoa da?

—Ohiko irakurketaren ezaugarrietako

bat da geldoa dela. Eta geldoa den neurrian, ulermenerako bide gutxi uzten du. Gainera, deskontzentrazio handia sortzen da astiro irakurtzean: kanpo elementuei sarrera ematen die. Alde handirik ez da izaten 16 urtetik aurrera irakurtzeko abia-

**«Normalean, zortzi asteren buruan lortzen da abiadura hori»**

dura zein ulermenaren inguruan. Metodo honen bitartez, hirukoiztu edo laukoiztu egiten da abiadura, eta harekin batera, ulermena ere. Irakurtzeko modua desberdina da: ez da silabikoa, espazialagoa baizik. Prozesu konplexua da, baina emaitza onak dauzka. Datekeena da 12 urteko pertsona bat minutuko 400 hitz irakurtzeko gai izatea. Ondorioz, askoz denbora gutxiago beharko du ikasteko, ez da horren aspergarria izango, kontzentrazio maila handiagoa lortzen da, egunero liburu bat irakurtzeko arazorik ez da izaten, ulermena handitzen da eta horrek ematen du ikasketetan eta bestelakoetan aurrera egiteko baliabide gehiago. Aldaketa asko ematen da, ikasleak berekiko daukan gaitasunen inguruko aldaketa. Ikasketetan gertatu eragozpen asko saihesten dira, arazo asko baitator ulermen ezatik. Oso pozik gaude emaitzakaz.

—Zenbat denboran lor daiteke abiadura hori, irakurtzeko metodoa menperatzea?

—Ikastaroak zortzi aste irauten du eta normalean epe horretan lortzen da. Batzuetan, helduei gehiago kostatzen zaie, baina gehienez beste aste bi, guk markatutako ariketak betez gero eta egunero ordubete lan eginez gero. Ez da ikastaro zaila eta lehen hilabetearen buruan hasten dira ikusten emaitzak. ○

Info+: [www.prakagorri.es](http://www.prakagorri.es)

## Badatoz sanisidroak!

Getxoko jaiak ospatuko dira maiatzaren 11tik 15era; karpa eta autobusa izango dira



Azken urteotan legez, kiroldegiaren alboko aparkalekuan ipiniko dituzte karpa eta txosnak

Getxoko jaiak ospatuko dituzte maiatzaren 11tik 15era, urteko herriko lehenak, sanisidroak. Ohiko legez, kiroldegiaren alboko aparkalekuan ipiniko dituzte karpa eta txosnak. Gainera, autobus zerbitzua eskainiko dute: barikuan Areeta-raino iritsiko da eta zapatuan Bidezabaleraino (metroa baitabil gau osoan).

Jai Batzordea topera dabil azken ekitaldiak lortzen, baina aurreratu digute zer edo zer. Barikuan hasiko dira jaiak, maiatzaren 11n: txupinazoa jaurtiko dute Geroa Ikastolako ikasleek 17:30ean, Malakaten. Bestalde, umeentzako jarduerak, mus-txapelketa eta grafiti-tailerra

egingo dituzte eta, 21:00etatik aurrera, kontzertua aparkalekuan; ‘Egurra eta kitto’ taldeak joko du.

Biharamunean, barriz, zapatuan, auzoa ezagutzeko ibilaldia egingo dute goizez. Ostean, herri-bazkaria izango da, eta arrastian triki-poteoa eta Itxas Argia taldearen dantzaldia, azken hori kiroldegian. Gauean erromeria eskainiko du Onartz taldeak. Domekan, barriz, azoka, herri-kirol txapelketa eta dantzaldia izango dira. Astelehenean, *Irrien lagunak* ikuskizuna izango da eta, ostean, kontzertuak. Martitzenean amaituko dira jaiak, honenbestez, ondo pasa! ○

## FILATELIA ERAKUSKETA VILLAMONTEN

Urtero legez, erakusketa antolatuko du Getxoko Filatelia Elkarteak hilabete honetarako Algortako Kultur Etxeko erakustaretoan: maiatzaren 12tik 19ra izango da. Asteleheneetik barikura bisita daiteke 10:00etatik 13:00era eta 18:00etatik 21:30era, eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara. Ehunka zigilu erakutsiko dute.

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## EMAKUMEAK ESZENAN MAIATZ OSOAN

Abiatu da Emakumeak eszenan antzerki zikloa, seigarrenez, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Hil honetan hiru antzezpenei ikusteko aukera dago. Horietako lehena maiatzaren 5ean izan da, baina beste lan bi taularatuko dute datozen asteotan. Bata, hilaren 19an, bestea 22an. Lehena antzeztuko du Xankore taldeak: *Buenos dias, Margarita*. Bigarrena, barriz, Luna Ilena taldeak taularatuko du: *Gente guapa, gente importante*. Emanaldi denak hasiko dira 19:00etan eta 3 euro ordaindu behar da sartzeko. Emanaldi egunean bertan edota aurretik eros daitezke sarreak.

## SENDIREN TAILERRAK MAIATZ ETA EKAINEAN

Sendientzako euskarazko jarduerak antolatu ditu hil hauetarako ere Sendik. Maiatzaren 8an garatuko dute lehena, Arropa margotzeko eta kustomizatzeako tailerra Algortako J.B. Zabala ikastetxean, Leire Zabala artistaren gidaritzapean. Bigarren jarduera, barriz, irristaketa-ikastaroa, hilaren 13an eta 20an izango da, Fadurako pilotalekuetan. Hirugarren jarduera maiatzaren 18an egingo dute, zirku-festa: makillaje-tailerra, txokolate-jana eta Tak-tak zirku antzezlan. Bestalde, ekainaren 1ean sukaldaritza tailerra egingo dute Itxas Argia taldeko lagunak txokolan eta ekainaren 9ko asteburuan, Narbartera (Nafarroa) egingo dute txangoa. Edozein ekintzatan parte hartzeko Egizu taldeagaz harremanetan ipin zaitezke.

Info+: [www.egizu.org](http://www.egizu.org)

# lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
[gusanalibreria@gmail.com](mailto:gusanalibreria@gmail.com)



Ana Lopez > Kultur Leioako zuzendaria

“Umore Azoka egin egingo dugu, ia aurrekontu eta ikuskizun kopuru beragaz: mailari eutsiko diogu”

Maiatzaren 17tik 20ra ospatuko da aurten Umore Azoka. Krisiaren gaineratik, ia aurrekontu eta ikuskizun kopuru bera mantentzea lortu dute. Euskarari dagokionez, aurtengo antzezlanetan ere gitxi entzungo ei da. Kultur Leioako zuzendari Ana Lopezek eman digu azokari buruzko xehetasun eta nobedade gehiagoren barri.

—Oso errotuta dago Umore Azoka, baina hasierako helburu bera daukazu? —Hasierako asmoa zen kalea artez beteta jendearengana hurbiltzea kale-artisten lana, jendeak kalea beste modu batean gozatzeko. Urteak aurrera helburuak aldatuz doaz; hasieran jendea erakarri gura genuen, eta hori, gauditu dugu. Bestalde, aldarrikatu gura genuen kale-artisten lana eta, apurka, lortu dugu. —Estreinaldi asko egin ohi dute Leioan. —Azoka bat da, eta alde horretatik, lehen helburua da artisten lanen erakustoki bihurtzea, eta hori ere, lortu dugu. Lehen urteetan Bizkaiko eta Euskadiko taldeek parte hartzen zuten, eta orain, gero eta talde gehiago hurbiltzen zaizkigu euren lana erakutsi guran, bai estatukoak, bai nazioartekoak. Aurten, garai latzak bizi ditugu eta nabarmentzekoa da mantendu



47 ikuskizun ikusi ahalko da aurtengo Umore Azokan

egingo dugula orain arteko maila; hau da, Umore Azoka egin egingo dugu, ia aurrekontu eta ikuskizun kopuru beragaz. Gainera, beste helburu bat da euskal taldeei lana erraztea. Euskadiko 14 talde parte hartuko dute eta guztiak estreinatuko dituzte lanak, eta estreinaldiak beti izaten dira apustu garrantzitsua. Guztira, 45 talde arituko dira azokan. —Aipatu duzunez, 14 euskal talde arituko dira; aurreko edizioetan euskara

oso gitxi entzun da, eta aurten?

—Azoka denez, taldeek aukeratzen dute hizkuntza. Kaleko arteetan hitz gutxi entzuten da, baina normalean, bi hizkuntzatan egiten dute, euskaraz eta gaztelez. Azoka izanda, profesionalak lana ulertzea gura dute antzezleek, gero kontratatuko badituzte; normalean ele bietan egiten dute. Batzuk euskaraz bakarrik egitea aukeratzen dute, aurten horrela erabaki du Atx Teatroak. ○

## KUBOA auzoz auzo

Ideien Edukiontzia proiektua darabil Udalak, ezagutzera emoteko **Tokiko Agenda 21**



Bederatzi hilabeterako egitasmoa da KUBOArena

**KUBOA** edo Ideien Edukiontzia egitasmoa darabil Udalak azken hilabeteotan, eta urte osoan garatuko du. Tokiko Agenda 21 herritarrei ezagutarazi eta iraunkortasunaren inguruan euren interesak ezagutu gura ei ditu: “*Idea nagusia Tokiko Jardunbide Egokiak hautematea da, ekimenak fusionatzea eta, denon artean, Leioan aurrera atera litezkeen jardunbide egokiei balioa ematea*”.

Horretarako ezagutzera eman gura dute zein tokiko jardunbide dagoen martxan, edota Leioako zein baliabide edo energia propio elkar litezkeen. Horren ostean, jardunbideok aurrera ateratzeko lan egiteko asmoa dauka Udalak, “*Tokiko Agenda 21etik egingo diren plan-*

*gintzen barruan, bai konpromiso politikoaren aldetik, bai komunitatearen ardura eta antolatze gaitasunarenetik ere*”.

Horretarako, benetako gune bat kokatu dute kalean: kristalezko edukiontzia. Bertan garatzen ari dira tailerrak, ikastaroak edota hitzaldiak: “*Jarduera hauek modu batean edo bestean Aalborg-eko Konpromisoen Gutuna deritzonagan agertzen diren hamar puntuak ukituko dituzte, hiritarren eta instituzioen arteko parte-hartze partekatua bitartez*”.

Orain arte Bulebarrean egon da KUBOA, baina auzoz auzo mugituko dute datozen hileotan, “*hiritarren ekimenak bilduz eta erdigunea eta auzoen arteko mugak hautsiz*”. ○

## BIZIKLETA ERAKUSKETA MAIATZAREN 20 ARTE

Aitor Alonso Arenazaren bizikleta bilduma erakusgai dago Kultur Leioan maiatzaren 20 arte. Artean bizi zen santurtziarrari bizikletak eta bizikleta-piezak eta osagaiak batzea otu zitzaion: “*Ibilgailuaren ibilbidea gogora ekarri eta euskal industria, batez ere Eibarkoa, omendu gura ei zuen. Izan ere, duela hamarkada asko, krisialdi larria jasaten ari zirela, Eibarko industriak dibertsifikazioaren bidea urratzen jakin zuen, bertan behera ez geratzeko eta aberastasuna sortzen jarraitzeko*”.

## HAUR-ESKOLETAN IZENA EMOTEA DAGO 11 ARTE

Haurreskolak Partzuergoko Leioako haur-eskoletan, Artatza eta Altzoan, izena eman daiteke datorren ikasturterako; epea amaituko da maiatzaren 11n, irailen edo urrian hasteko. Umeen zainketa osoa eta hezkuntza ekaintzen dute bi eskoletan, 0 eta 2 urte bitarteko umeentzat. Irailetik uztaile bitartean eskaintzen dute zerbitzua, bi hilabete horiek barne. Altzoan haur-eskolagaz harremanetan ipintzeko 946 072 599 telefonora deitu edo altzoan.leioa@haurreskolak.net helbidera mezua igor dezakezu. Artatza haur-eskolagaz egiteko, barriz: 944 048 601 edota artatza.leioa@haurreskolak.net.

Info+: [www.leioa.net](http://www.leioa.net)

## ZUZENDARI HURKOEI BURUZKO ZINE-ZIKLOA

Hilero legez, maiatzerako ere prestatu dute ziklo interesgarria Perseo Zine Forumaren barruan: *Zuzendari hurkoak* zikloa. Maiatzaren 8an abiatuko da *Pagafantas* filmagaz, Borja Cobeaga zuzendariarena. Hilaren 15ean, barriz, *Extraterrestre* proiektatuko dute, Nacho Vigalondorena; eta 22an, *Un mundo casi perfecto*, Ibarretxe anaiaena. Pelikula danak emango dituzte 20:00etatik aurrera eta 2 euro ordaindu beharko da sartzeko.

Info+: [www.kulturleioa.net](http://www.kulturleioa.net)

**udondo**  
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2  
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

**BIZKAIA**  
irratia

**BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan**

F.M. 102.6 Mhz

[www.bizkaiairratia.com](http://www.bizkaiairratia.com)



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**  
[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com) · 943 37 15 45

## [erandio]

**Itziar Galardi** > Erandioko Musika Eskolako zuzendaria

“Umeak dira gure oinarria, eta garrantzitsua da txikitan hastea musika ikasten”

**Solfeoa zein musika-tresnak ikasteko eskaintza gero eta zabalagoa dauka Erandioko Musika Eskolak. Datorren urtean ikasten hasi gura dutenek laster eman ahalko dute izena, ekainaren lehen hamabostaldian. Josu Murueta Kultur Etxean dago musika eskola.**

—Aspaldikoa da Erandioko Musika Eskola, baina beti daukazu lekua ikasle barrientzako, ezta?

—Hogei urtetik gora dauka musika eskolak eta, urtetik urtera, ikasketa eskaintza zabaldu da. Orain murgilduta gaude datorren ikasturterako matrikulazio kanpainan. Egungo ikasleena amaitu ostean, ikasle barriek eman ahalko dute izena, ekainaren lehen hamabostaldian. Udaleko webgunearen bitartez egin dezakete, telefonoz edota eskolara bertaratuz.

—Erandioztarrak bakarrik matrikula daitezke?

—Ez, ez. Erandioztarrek daukate lehen-tasuna, baina edonork eman dezake izena gure musika eskolan. Umeak 4 urtetik aurrera has daitezke ikastea eta hori garrantzitsua da, izan ere, uste dut inguruan beste inon ezin daitezkeela hasi horren txiki. Abestu, jolastu, e.a. geroago musika-lengoian eta tresnetan ikusiko



Izena eman daiteke eskolan bertan, internetez zein telefonoz: [www.erandio.net](http://www.erandio.net) eta 944 170 776

dituzten kontzeptuak ezagutzen hasten dira, baina abestien eta mugimenduaren bitartez, eta kontzeptu horiek barneratzen ari direlako kontziente izan barik. Musika hurbilketa da eta bospasei urtetik aurrera ekingo diete lengoia eta tresnei. Gure oinarria dira eta garrantzitsua da txikitan hastea musikan.

—Maila altuagoetan hastea badago?

—Bai, beste leku batzuetan ikasi badute, adibidez. Helduentzako taldeak ere badauzkagu, beraz, edozein pertsonak

ikas dezake musika; 300dik gora ikaslerentzako lekua daukagu. Eskola bakarra da, baina Astrabuduan eta Alzagaren daukagu gelak. Tresna asko ikasteko aukera eskaintzen dugu: haize-, hari-, trikitixa, pianoa, gitara elektrikoa eta, datorren ikasturteretik aurrera, perkusio-tresnak. Orkestrak eta koroa ere baditugu eta kontzertuak eskaintzen ditugu urtean zehar: elizetan, eskolan bertan, beste musika eskola batzuetan, nagusien etxean, e.a. ○

## Oinezkoentzako tunela udazkenean eraikitzen hasiko dira Lutzana eta Alzaga arteko bidegurutzean



BI-735 eta BI-711 errepideen arteko bidegurutzean egingo dute oinezkoentzako tunela

**Lutzana** eta Alzaga auzoen artean oinezkoentzako igarobidea, azkenean, udazkenean eraikitzen hasiko direla iragarri du Udalak: pasabideak tunel forma izango du, Asuarako errepidearen eta itsasadarraren arteko bidegurutzean, izan ere, gaur egun nahiko pasabide arriskutsua da oinezkoentzat.

Tunel hori egiteko 1.146 metro koadro lur eman dio Udalak Aldundiari. Lursail horietako batzuk Udalarenak ziren eta beste batzuk desjabetu egin dituzte. Bizkaiko Aldundiari eman dizkio, hark gauzatuko ditu eta pasabidea eraikitzeko lanak. Ildo horretan, lanak

gauzatzeko eskaintza ere ateratu du, 972.333 euroan.

Pasabidea, zehazki, oraingo bidegurutzetik metro batzuk gora kokatuko dute, Asua auzorako norantzan. Errepidearen aldapa apur bat altxatu beharko dute eta oraingo malda baliatu, azpian tunela ipintzeko. Horrela, lurraren arrastean lotuko da pasabidea eta oinezkoek ez dute eskaierarik erabili beharko. Bestalde, tunel barruan bideo bidezko zaintza-sistema ipintzeko asmoa daukate, baita argiztapen berezia ere. Gainera, espalo bi egingo dute tunelera sartzeko, baita trafikoa erregulatzeko irla bat ere. ○

### SAN INAZIO KALEA ATONTZEA ALTZAGAN

Zortzi hilabetez itxi dute Alzaga auzoko San Inazio kalea, barriro urbanizatzeko eta saneamendua hobetzeko lanak egiteko. Horregatik, Urdaneta kaleko trafikoaren noranzkoa aldatu dute, horrenbestez, herrira sartzeko bide bihurtu da, ez urteera-bide. Gainera, Antonio Trueba kalean urteera-errei bat ahalbidetuko da, bidea erreil bira zabalduz eta aparkatzeko alde bat kenduz. Azkenik, Obieta eta Jado kaleek ez dute aldaketarik jasango eta zirkulazio-noranzkoak mantenduko dituzte ohiko ordutegian (13:30 arte).

### HAURRESKOLAN IZEN-EMOTEA MAIATZEAN

Hil honen bigarren hamabostaldian eman ahalko da izena Erandiogoikoako Haurreskolan, umeak 2012ko irailean edo urrian hasteko, Udaleko Hezkuntza Arlotik jakinarazi dutenez. Beraz oraindino garaz zabilta umea apuntatzeko. Eskolagaz harremanetan ipintzeko 944 530 601 telefonora dei dezakezu, edota [erandioigoia.erandio@haurreskolak.net](mailto:erandioigoia.erandio@haurreskolak.net) helbidera mezua igorri.

Info+: [www.erandio.net](http://www.erandio.net)

### BERBATXANGOIA IZANGO DA MAIATZAREN 12AN

Udabariagaz batera loratzen hasi dira Berbatxangoak gure eskualdean. Lehena izan zen martxoan eta Uribe Kostako lehenengo ur-azpiegiturak ezagutzeko parada egon zen. Bigarren txangoan, barriz, Sopolako errotak bisitatu zituzten, apiril akabuan. Eta hil honetan, maiatzean, Erandioren txanda izango da: herriko toponimia ezagutzeko aukera eskainiko du Berbots taldeak hilaren 12an. Erandioko taldeagaz batera sustatu eta antolatu dituzte berbatxangoak Sopolako Aitxu! euskara-elkarteak eta Getxoko Egizu taldeak. Iazko udazkenean abiatu zuten ekimena. Animatu eta parte hartu, euskara eta kultura, gozatzeko moduko altxorrak dira-eta.



[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)

**EGUNKARIAK**  
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

## LAN ISTRIPUETAN ZENDU DIREN AUZOKIDEAK OMENDU DITU UDALAK

Apirilaren 28an, Lan Osasunaren Nazioarteko Egunean, ekitaldia antolatu zuen Sopelako Udalak, 2010. urtean lan istripuetan hil ziren hiru sopeloztarrak omentzeko. Jauregizar plazako ekitaldian, oroigarri bat jarri zuten eta hiru zuhaitz landatu zituzten.

## UDAL AURREKONTUAK AZALTZEKO AUZO-BILERAK

Sopelako Udalak lau bilera antolatu ditu herriko lau auzotan udal-aurrekontuak auzokideen artean jendarteratzeko eta zalantzak argitzeko. Lehenengo hitzordua maiatzaren 10ean izango da, udaletxe sarreran. Hilaren 14an, astelehena, Sopelmarren egingo dute. Maiatzaren 15 eta 16an, barriz, Sopelmar eta Larrabasterraren txanda helduko da (azken hau Iberren). Bilera guztiak 19:00etan izango dira.

## KALE-ANTZERKIA, OPERA ETA KONTZERTU LIRIKOA

Aspertzeko astirik ez duzu izango maiatzean, Kultur Etxeak prestatu duen egitarauari esker. Hilaren 11n *Habitus Mundi* kale-antzerkia izango da udaletxe plazan, 20:00etan. Maiatzaren 13an, barriz, *Bazen behin opera* ikuskizuna helduko da Kurtziora, 18:00etan. Hurrengo astebururako, 18an, kontzertu liriko antolatu dute, 20:30ean Kultur Etxean bertan, eta hilaren 20an, ostera, *Katu bat Parisen* pelikula eskainiko dute 18:00etan.

## JARE TALDEAK EGIN DU JAIETAKO ABESTIA

Aurtengo jaiak barrikuntza ugari izango dute. Berbarako, Sopelako jaiak kanta izango dute: 'Gaur da gure eguna'. Jare taldeak egin du, Miren Loizaga bertsolari sopeloztarraren hitzetan oinarrituta. Kepa Junkerak ere abestian parte hartu du.

## XXVII. Ibilaldi Neurtua **prest!** Urko Mendi Taldearen txangoak mendizalez beteko du Sopela **maiatzaren 13an**



Nagusiak 08:30ean urtengo dira, eta umeak 10:30ean

**Urtero legez,** maiatzagaz batera helduko da Sopelako Urko Mendi Taldearen Ibilaldi Neurtua. Aurtengoa hilaren 13an ospatuko da, eta XXVII. edizioa izango da. Urtez urte gero eta gehiago dira txangoan parte hartzerantz animatzen diren lagunak; iaz mila lagun batu ziren, eta aurtengoa kopuru hori gainditzea aurreikusten dute antolakuntzakoek.

Aurtengo ibilbidea apur bat aldatu dute mendi taldeko kideek, baina jakinarazi duten legez, "beti bezain erakaragarria eta ederra" izango da. Ibilaldian parte hartzeko, ez da beharrezkoa izan-

go alde aurretik izena ematea; egunean bertan egin daiteke. Nagusiak 08:30ean urtengo dira Udaletxe plazatik, eta umeak, barriz, 10:30ean, leku beretik. Ibilaldia amaitu ostean, hamaiketako izango da plazan. Barinatxe taldeko txistulariak ere herriko tabernetan ibiliko dira bazterrak girotzen.

Horretaz gainera, maiatzaren 12an, zapatuan, Urkokoek umei begirako zenbait jardura antolatuko dituzte Udaletxe plazan bertan; besteak beste, 19:00etatik aurrera txokolatada erraldoia egongo da. ○

**Begoña Ibañez >** Amets-hizkuntza irakaslea

"Amets batzuek gakoak ematen dituzte, bidea nondik egin behar dugun erakutsiz"



Ikastaroa debalde izango da eta ez da beharrezkoa izena emotea

**Itzartu elkarteak** antolatuta, amets-hizkuntzari buruzko ikastaroa izango da Sopelan maiatzaren 9an eta 16an, 18:00etan emakume-taldearen egoitzan. Begoña Ibañez barakaldotarra izango da irakaslea.

—Ikastaroan bakoitzaren ametsak interpretatzen irakatsiko duzue, ezta?

—Ametsi buruz berba egingo dugu; historian erreparatu bat egingo dugu hainbat kulturatan ametsak izan duten garrantzia aztertuz. Batez ere mundu erlijiosora lotuak egon dira. Egun, indigena asko ametsak terapia legez erabiltzen ditu.

—Eta zelan uler dezakegu ametsak bota diguten mezua?

—Ametsen sinbologiari buruzko liburu asko dago, baina nire ustez horregaz ez da helburu hori lortzen. Hegaz egiten duzula amesten baduzu; hori zure historia pertsonalaren zati bat da, eta zure barnetik interpretatu beharko duzu. Izan ere, ametsen mundua kontrolik

bakoa da: hor gure itzalak eta pertsonajek agertzen dira, eta mundu hori gure nortasunaren zati da. Amets batzuek etorkizuneko ekintzak iragartzen dituzte, beste batzuek gakoak ematen dituzte bidea nondik egin behar dugun erakutsiz... Niretzat, ametsak bilatzeko eta topatzeko bideak dira.

—Badago modurik izaten ditugun ametsak kontrolatzeko?

—Nire ustez bai; aditu batzuen arabera, amets zuhur batzuetan parte hartzeko

**«Ametsen munduan gure itzalak eta pertsonajek agertzen dira»**

aukera izaten dugu, ametsen sartu eta urteteko. Irokien etnien, adibidez, ume batek jausten dela amesten duenean, gurasoek ametsen oinak lurtean jartzen irakasten diote, lortzen duen arte. Gure kulturaren, ostera, jausten uzten digute: ez digu inork bestelakorik irakasten. ○

Info+: itzartu@hotmail.com

## DIDAK hAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

## OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)


Zubigane 4  
48600 Sopelana  
Tf. 94 404 74 20  
CITA PREVIA  
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU  
ONGIZATEAREN  
ZUTABE, OINEZ  
EDONORA HEL  
ZAITZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

**Etxeart**  
Eraikuntza / Barrikuntzak  
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea  
Etxalde 2 - Pabiloi 11  
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346  
Tel.: 946 773 144



http://www.etxeart.com

**Josefina Mota Bilbao** > Gerra zibileko bonbardaketen lekukoa

“Gauze txarrarik ez dau gerre baino! Bildurregaz egon ginen egun duztiten, noz hilko gaituzen...”

**Zerutik sua dator dokumentalean gerra zibileko bonbardaketen lekukotasunak jaso ditu Egoitz Rodriguezek. Josefina Mota berangoztarrak filmean parte hartu du lekuko legez, Getxoko bonbardaketen barri emoteko.**

**75 urte bete** barri dira Gernikako bonbardaketatik. 1936 eta 1939. urteen artean, baina, Gernika ez ezik Bizkaiko beste 36 herri ere bonbardatu zituzten, tartean Getxo eta Berango. Aurten estreinatu den *Zerutik sua dator* dokumentalean, bonbardaketa horiek pairatu zituzten lekukoen berbak jaso ditu Egoitz Rodriguez Olea zuzendariak. Besteak beste, Josefina Mota Bilbao 92 urteko berangoztarrak parte hartu du filman.

Motak 15 urte zituen Getxon eta Berangan bonbardaketak hasi zirenean. Urte asko joan da, baina ezin izan du ahaztu hegazkinek sortzen zuten zarata: “Ondo akordetan naz, asko ta txarto pasa gendulako, oso gaxxa izan zan”. Laukiztarra jaiotzez, Getxora bizitzen etorri zen umetan: “Ni ez naiz joan eskolara ordubeten berez. Krieda etorri nintzen Getxora zortzi urtegaz, hamabost eguneko umetxu gobernatzen”.

Horren ostean esne-saltzaile ibili zen,



92 urteko berangoztarrak *Zerutik sua dator* dokumentalean parte hartu du

gerra etorri zen arte. Bilbon bertan zegoela, bonbardaketa bat jasan zuen: “*Bilbora joaten nintzen esneagaz. Kalle Correon bota euden bomba bat, ta ni parajen egon nintzen. Sentidu nuen haize bat... hegaz joan nintzen! Eta Bilboko alguazilek ekarri eusten etxera*”.

Bonbardaketen beldur, Bilbora joateari utzi zion, baina bonbardaketak izan ziren Getxo eta Berangora etorri zirenak: “*Azkorri kanoiak egon ziren, polboriñe*

*Berangoko mendin, eta puestomando Azkorri goien bere bai*”.

Egurretan joaten zenean, bide erdian, bonbardaketak hasi eta askotan, trintxeretan ezkutatu eta begiak ixten zituen: “*Bonbardeoak baino, metralle zan! Bildurregaz egon ginen egun duztiten, noz hilko gaituzen...*”. Egun, horrelakorik barriro ez errepikatzea da berangoztarraren gurari nagusia: “*Oso tristea da... gauze txarrarik ez dau gerre baino!*”. ○

**Iñaki Lagos** > Gorlizko eta Plentziako euskara-taldeko kidea

“Euskararen normalkuntzan urratsak egin gura ditugu”



Lagosegaz batera, Plentziako eta Gorlizko 15 bat euskaltzale batzen dira

**Oraintsu** sortu barri dute Gorliz eta Plentziako euskara-taldea, eta, daborduko hamabost herritar inguru batzen hasi da; asmo bakarragaz: herrietan euskara lau haizetara zabaltzea. Eta gu, gurean, euskararen sua elikatzeke sortu den txinparta barriaren lekuko gura izan dugu. Horregatik, hastapenen barri eman dagigun, Iñaki Lagogaz, taldeko kide batez mintzatu gara.

—**Zer dela eta euskara-talde bat?**

—Plentzia eta Gorliz euskararen presentzia eskasa da, eta hori ikusita euskara taldea sortzen animatu gara.

—**Zer behar asetzerazatozte?**

—Berez, euskara-talde baten beharra euskara bera da. Gure herrietan euskararen erabilera areagotzea, eta bere presentzia handitzeko asmoa dugu.

—**Zelan lortuko duzue euskararen erabilera zabaltzea herri horietan?**

—Ekintza bidez lortzen saiatuko gara.

Horrela, Gorliz eta Plentzian euskararen presentzia handitu gura dugu, eta gure gizartean euskalduntzearen aldeko pausoak emango ditugu.

**«Ekainaren 9an egingo dugu taldearen aurkezpena»**

—**Zein izango da zuen dinamika?**

—Gure dinamika jendearen parte-hartzean oinarritzen da. Euskararen erabilera kaleratzea, eta euskaldunak batzea lortu nahiko genuke.

—**Hemendik aurrera, zer ekimen?**

—Gure lehenengo ekimena, aurkezpen moduan, Gorliz ekainaren 9an izango da, herrian bertan bazkaria eta kantaldia antolatuko dugu, eta ekimenera herriko talde eta euskaldun guztiak gonbidatuko ditugu. Gerorako ere, ekintza batzuk antolatutako ditugu, baina oraindik, horiek guztiak zehazteke daude. ○



## AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / TF. 94 491 17 86

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96



Torre 2  
48990 ALGORTA  
94 491 12 71  
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

**COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.**

**Harrizko moduko kalitatea!**

- Garbiketa orokorra
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialia
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

**Zure publizitatea hemen**

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37

publiuk@aldizkaria.biz

## URDULIZKO HAPN-REN AURRERAPENA IKUSGAI

Hilabete bi egongo da ikusgai Urdulizko Hirigintza Antolatzeko Plan Nagusia berrikusteko AURRERAPEN-AGIRIaren erakusketa. Udalak Kultur Etxean jarri ditu agiri horretako planoak agertzen dituen panelak. Horrez gain, planoen azalpena auzokideei errazago egiteko, erakusketak irauten duen bitartean, arrastiro 17:00etatik iluntzera 20:00ak arte HAPN diseinatu duen kide bat egongo da bertaritzen direnen zalantzak argitzeke.

## AUTOBUSA IBILALDIRA GORLIZETIK

Ibilaldia, Bizkaiko Ikastolen aldeko jaiak, aurtentzat Meatzaldean izango dugu. Eta gurean, Gorlizetik joateko aukera izango da; hala, autobusean apuntatzeko aukera izango dute interesatuek maiatzaren 14tik 23 bitartean Gorlizko Kultur Etxean. Beraz, aurtentzat Trapagaranen ekainaren 3an izango den Ibilaldira Gorlizetik joateko abagunea egongo da.

## EUSKARAZ OLGETAN-EKO EKITALDIAK MAIATZEAN

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatzen duen aipatu ekimenaren barruan, ondorengo jarduerak iragarri dituzte: komiki tailerra (Plentzian hilak 10; Urdulizen hilak 11; Gorliz hilak 12; Sopelan hilak 13) eta tatuaje tailerra zein ipuin kontalaria (Lemoizen hilak 14; Plentzian hilak 17; Urdulizen hilak 18; Gorliz hilak 19; Sopelan hilak 20).

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

## Barrika

Barrikako aurrekontuek ekarpen handia egin diote **kirol-eremuari**



Piragua-taldearen egoitza barrizteko hautua egin du Udalak

**Aurtengo** herrietako aurrekontuak austeritatearen aldeko apustu garbia dira, eta Barrikako udalak ere horren alde egin barri du. Iaz Barrikak ia 3 milioi euroko aurrekontua bazuen ere, erdira baino gutxiagora jaitsi da aurtengo udalerraren inbertsioa, 1.521.991 eurora zehazki. Horrela, krisiari aurre eginez hainbat alorretan murrizketa nabarmenak egin dira; partida guztietan, hain zuzen. Halere, murrizketak murrizketa, Barrikako udalak 187.107 euroko partidako (iazko erdia) inbertsioari eutsi ahal izan dio. Herrian egingo diren inbertsioen artean kirol-instalazioetan egingo dira nagusiki; izan ere, aipatutako diru horretatik zati handia horretara bideratuko da. Are gehiago, kirol-instalazioetan egingo diren obrak herrian egingo diren bakarrak izango dira. Inbertsiorik jasoko duten kirol-instalazioen artean, Atxutegi futbol-zelaia dago; horrek 7.000 euroko

inbertsioa izango du argiztapen-instalazioa barrizteko. Horrez gain, emakume-taldearentzako aldagelak eraikiko dituzte zelai horretan bertan, eta horrek 16.400 euroko inbertsioa beharko du. Bestalde, piragua-taldea ere kontuan izango da inbertsioa egiteko; egoitza

## Aurrekontuetan murrizketa nabarmena izango da eremu guztietan

berresteko, hain zuzen. Kirolean egingo diren inbertsioaz gain, hainbat diru-partida bideratuko da, markesinetan trenkadak jartzeko baita ekipamendu informatikoak berresteko, baita hondo bibliografikoak mantentzeko ere. Bestalde, aurrekontuak 1.000 euro gorde ditu emakumearen kontrako indarkeriarako, eta 6.000 euro euskararen erabilera zabaltzeko.

# Mai. 8 - Mai. 21

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### ERANDIO

▶ **Gure lorak (Takolos Radio Kluba)**. Maiatzaren 14tik 18ra. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean.

### GETXO

▶ **Edurne Gorrotxategiren pigmentuak eta zirriborroak**. Maiatzaren 31 arte. Algortako Torre aretoan.

### LEIOA

▶ **Bizikletak**. Maiatzaren 20 arte. Kultur Leioan. Doan.

### PLENTZIA

▶ **Araldiko tailerrak**. Maiatzaren 31 arte. Goñi Portalen.

## ANTZERKIA

### GETXO

▶ **Nazioarteko Dantza Eguna**. Maiatzak 12, 11:00etan. Areetako Geltokia plazan.

▶ **Binefarko titiriteroak**. Maiatzak 20, 18:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 4 euro.

### BERANGO

▶ **Hipo eta Tomax**. Maiatzak 13, 18:00etan. Berango Antzokian. 3 euro.

### LEIOA

▶ **Umore Azoka**. Maiatzaren 17tik 20ra. Erdigunean.

### ERANDIO

▶ **Txotxongiloak**. Maiatzak 20, 12:00etan. Astrabuduko kultur etxean. Doan.

### GORLIZ

▶ **Ipuin kontalaria**. Maiatzak 25, 18:30etan. Teresianon.



Info+: [www.extreme-man.com](http://www.extreme-man.com)

### ▶ Kirola

## Extreme Man 113 triatloia Getxon

Maiatzaren 13an jokatu da Extreme Man 113 Getxo-Basque Country triatloia. Distantzia luzeko eta goi mailako nazioarteko triatloia da eta 2010ean sortu zuten. Getxoko proba Win Sports Factoryk antolatuko du, Udalaren laguntzagaz. Ondorioz, Euskal Herriak lehenengoz hartuko du nazioarteko zirkuituko proba, eta 500 parte hartzaile batzea espero da. Lasterketa Ereaga hondartzan hasiko da 07:30ean eta, guztira, 113 kilometroko distantzia izango du: 1.900 metro igerian, 90 kilometro txirridulaz eta beste 21 kilometro korrika. 1994an edo lehenago jaiotakoek parte har dezakete eta izena eman daiteke probaren webgunean: [www.extreme-man.com](http://www.extreme-man.com).

• **Non:** Ereagatik urtergo da • **Noiz:** Maiatzaren 13an, 07:30ean

## MUSIKA

### GETXO

▶ **Those Radios**. Maiatzak 10, 20:00etan. Areetako Glass kafetegian. Doan.

▶ **The Fakeband**. Maiatzak 17, 20:00etan. Romoko West Side Bar tabernan. Doan.

### ERANDIO

▶ **Kontzertu lirikoak**. Maiatzak 20, 19:30etan. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. 2 euro.

### SOPELA

▶ **Bazen behin opera**. Maiatzak 13, 18:00etan. Kurtzio Kultur Etxean.

▶ **Kontzertu lirikoak**. Maiatzak 18, 20:30etan. Kurtzion.

## ZINEMA

### ERANDIO

▶ **Gartzot, konkista aitzineko konkista**. Maiatzak 10, 19:30etan. Tartanga institutuan. Doan.

### GETXO

▶ **J. Edgar (jatorrizko bertsoaren azpituluakaz)**. Maiatzak 11, 21:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,90 euro.

### GORLIZ

▶ **Zine-kluba**. Maiatzak 16, 19:00etan. Teresianon.

### ERANDIO

▶ **El exotico hotel Marigold**. Maiatzak 19, 19:30etan. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. 2 euro.

### SOPELA

▶ **Katu bat Parisen**. Maiatzak 20, 18:00etan. Kurtzio Kultur Etxean.

## BESTEAK

### GETXO

▶ **Umeentzako ginkana**. Maiatzak 13, 11:00etan. Udal Kultur Gunean.

### URDULIZ

▶ **Euskaraz olgetan**. Maiatzaren 11n, 18an eta 25ean. Antsonekoa plazan.

### LEMOIZ

▶ **Euskaraz olgetan**. Maiatzaren 14an, 21an eta 28an. Urizar eskolan.

### ERANDIO

▶ **Hitzaldia: Gartzot, Nafarroaren deskonkista kolektiboa /Asisko Urmeneta**. Maiatzak 15, 19:30etan. Altagako postetxe zaharrean.

### SOPELA

▶ **Liburu-aurrezpena: Bakamortuko kronikak**. Maiatzak 18, 19:00etan. Plaza Beltza kulturunean.

### PLENTZIA

▶ **Skate-erakustaldia**. Maiatzak 19. Futbol zelaietan (Udaletxearen atzean).



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA

[albuma]



## Jira eta bira...

Gaur egun, herri bat ez da ezer biribilgunerik ez badauka. Edozein txokotan topatuko duzu biribilgune bat, txanpinoiak legez urten dira leku guztietan. Orain dela zenbait hamarkada eraiki zuten lehena, aitzindaria: Leioako biribilgune handia. Eta ondotik etorri dira beste danak, modan ipini dira-eta. Zenbat kilometro egin dugun bira eta bira... Honenbestez, badakizu, ipin egizu biribilgune bat zure bizitzan!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





## Villabotas baserria

Salsiduko aldatsan

1950 urte inguruan bota zuten Villabotas baserria. Bertan, Uriartetar eta Alonsotar familiak bizi izan ziren urte askoan. Baserriak 150 urte inguru iraun zuen zutik Salsidu kalean gaur egun dagoen *Gure Toki* taberna aurrean, eta baserriko korta eta soloak aldatsa beheran zabaltzen ziren; korta hartan, hain zuzen, Villabotas sendiek asto, zaldi, behi eta ganadu ugari gordetzen zuten. Hainbat korta eta orturen artean sagarrondoak ziren jaun eta jabe Algortako aldatsa neketsuenean: Salsidun. Hori dana Santi Alonsok akorduan gorde duelako dakigu; eskerrik asko Santi!

[berbetan]

Erandion jaio bazen ere, Lemoizen bizi da Iratxe Azkue (Erandio, 1975). Gaur egun LAB sindikatuko Eskumaldea eskualdeko (Txorierri, Uribe-Butroe eta Uribe Kosta) arduraduna da. Zientzia Politikoak ikasi zuen eta 8 urte daroaz sindikalismoan. Martxoaren 29ko Greba Orokorraz, Espainiako Gobernuak onartu duen Lan Erreformaz eta horien ondorioez, zein horiei aurre egiteko aukerez, eginbeharrez, estrategiez e.a. jardun dugu Azkuegaz; eskualdearen egoeraren gaineko erradiografia egitea eskatzeagaz batera.

# Iratxe Azkue

## Herrietan borrokari lotuz

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—M29, Greba Orokorra. Euskal Herri-  
tik hedatutako deia. Arrakasta. Ostera,  
hurrengo egunean (aurrerantzean) zer?

—Laugarren greba izan zen Hego Euskal  
Herrian. LABetik 2008an hasi ginen ego-  
era salatzen, hau ez da kontu barria gure-  
tzat. Ordutik, hainbat kanpaina egin di-  
tugu; “Euren krisia, euren kontura”  
2008ko kanpaina harekin hasi ginen...  
Ordurako, zetorrena salatzen genuen,  
nondik, non eta zergatik sortu den “krisi  
hau”; esaten genuen alternatiba bazego-  
la, eta zelan lortu ere bagenioen. Hortik  
aurrera, txarto ez banabil, lehenengo gre-  
ba orokorra 2009-2010ean izan zen, eta  
martxoko hau laugarrena. Oraingo hone-  
tan, azken Lan Erreforma onartu dutene-  
an egin da; ostera, urtean zehar lan erre-  
forma asko egin dituztela ezin ahaztu, ha-  
mar bat inguru. Halere, azken Lan Erre-  
forma hau benetan larria da; ez delako  
“beste” lan erreforma bat, honek lan-ha-  
rreman eredu osoa aldatu duelako, horre-  
tarako egin baitute. Aurrerantzean lan-  
harremanak ez dira izango orain artekoak  
modukoak; sindikatuan oso argi geneu-

kan hori, eta geure asmoa jendeari hori  
bera adieraztea zen. Puntu garrantzitsu  
batzuk azaldu eta salatu nahi genituen,  
adibidez, enpleguarena: behin eta berriro,  
Lan Erreformak enplegua sortuko duela  
saltzen ahalegintzen dabilta, baina ez da  
egia, ez du enplegurik sortuko, suntsitu  
baino! Bestetik, prekarietatea are gehiago  
handituko du, enplegua guztiz prekariza-  
tuko da. Oso argi eduki behar dugu:  
enplegua edukitzeak ez du ziurtatzen,  
bermatzen, bizimodu duina izango

ko tresna guztiak oparitu dizkiote; eta ga-  
tazka horri ekin ahal izateko bitarteko ba-  
rik utzi gaituzte langileok. Alde batetik,  
“legalki” ez dugu inolako bitartekorik  
izango beraiek, edo patronalak, planteat-  
zen dutenari aurre egiteko; gaur egun,  
dagoeneko ez da posible, orain arte legez,  
auzitegian salatzea langileon eskubide  
urraketaren bat... Beraz, geratzen den au-  
kera bakarra borroka da!

—Lan Erreforma hori bertan indarrean  
sar ez dadin, zeintzuk dira egiteko mo-

**“Enplegua edukitzeak ez du  
ziurtatzen, bermatzen,  
bizimodu duina izango dugunik!”**

dugunik! Bestalde, negoziazio kolektiboa  
guztiz deuseztu dute, eta langileon es-  
kubideak zapaltzeaz gainera, eskubide  
horiek defendatzeko funtsezko tresnaren  
kontrako eraso larria da. Halaber, alde  
bakarreko lan-harreman eredu inposatu  
dute; botere osoa eman diote patronalari,  
eta Estatua guztiz alboratu da lan-harre-  
manetatik. Patronalari nahi duena egite-

duak, bideak, estrategiak?

—LABen argi daukagu alternatiba baka-  
rra burujabetza dela. Burujabetza zertara-  
ko? Hemen erabakitze gure politika  
ekonomikoak, politika sozialak e.a. Ego-  
era, hemen, ezberdina da; ez bakarrik  
ekonomikoki, egoera ezberdina da maila  
politikoan, baita sindikalean ere. Beraz,  
bide bakarra burujabetza da, erabakitze-





ko eskubidea izatea. Hemendik aurrera, batez ere uda bitarteko plangintzan, LABen ekimen nagusiak hauek izango dira: alde batetik, Erreformaren ondorioen kontrako borroka lan-merkatuan; batez ere, negoziazio kolektiboari begirako ekimenak. Eskatzen duguna da hemengo hitzarmenen defentsa egitea, euskal esparruaren defentsa, gure hitzarmenak blindatzeko. Horretarako beste sindikatuak hitz egiten gabiltza; zentzu horretan, momentu honetan, planteamendu batzuk daude mahai gainean... Bestetik, enpresetan, orain, lan-gatazka piloa dago, eta horiei zelan aurre egin prestatzen gabiltza. Egia da ez dagoela halako makila magikorik, enpresa bakoitza desberdina delako... Baina, argi dugu pausoak emon behar ditugula. Sindikalismoa egiteko modua ere, Erreforma hau eta gero, uste dugu aldatu beharrekoa dela. Horretarako, esaterako, LABek aurten dauka VIII. Biltzar Nagusia; bertan, ekintza-sindikala indartzeko eta borrokarako erabakiak hartu beharko ditugu. Orduan, alde batetik, Erreformaren ondorioen kontrako borroka lan-merkatua; bestetik, argi dugu, beste ardatz nagusietako bat enpleguaren, babes-sozialaren eta zerbitzu publikoen aldeko borroka izango dela. Eta argi eta garbi, borroka hori lan-munduan, sektore publikoan batez ere, eta herrietan gauzatu behar dugu. Orain dela hilabete batzuk erabaki genuen eskualdeak izango direla gure aktibazio eta mobilizazio-gune nagusiak; eskualdeak dirrelako herrietako borroka aktibatzen dituzte. Eskualdeak izango dira, azken finean, eredu berria eraikitze oinarritzko guneak. Bestalde, osasungintzako edo irakaskuntzako erreformak ere onartu dituzte, eta kontu horiekin! Greba baino lehen ere esaten genuen: orain arte eskubideak zirenak luxuzko gai bihurtuko dira, hau da, osasungintza edo hezkuntza luxuzko kontu izango dira; lan egin beharko dugulako hori dena ordaintzeko. Horregatik, enplegua edukitzeak ez du bermatuko bizimodu-duina.

Beraz, zerbitzu publikoen aldeko borroka hori ardatzetako bat da guretzat. Bestelako ardatza ere berau da: beti diogun bezala, beste eredu bat eraki beharra dago, eta eredu berria eraikitze behar-beharrezkoak diren aldaketa politikoen aldeko borroka indartu nahi dugu. Uste dugu Grebak gestio politiko sendo eta antolatua behar duela; ekimen politiko eta instituzional

### “Instituzioei eta alderdi politikoei eskatzen diegu, hemen Lan Erreforma ez ezartzea; ez daudelako derrigorturik...”

berriak sustatzeko baldintza onak sortu ditugu, baina ezin dugu aukera hau galdu. Orduan, lan-harremanetarako eta babes-sozialerako euskal esparrua eraikitze urratsak eman behar direla aldarrikatu eta inizatibak hartzea eskatuko dugu; eta, alternatiba ekonomiko eta soziala behingoz artikulatu behar dela ere aldarrikatuko dugu. Zelan egin?!...

—**Hori da kontua. Maiatzaren 1a ere igaror barri. Aldarrikapenak edonon, baina egunerokoan, edota, hobe esanda, aurreantzean zelan egin? Zelan horiek egikaritu? Neurriak...**

—Ez da batere erraza! Fronte guztiak zabalik daude. Orain arte negoziazio kolektiboak langileen lan-baldintzak hobetzeko tresna nagusiak izan dira. Erreforma honenkin, esan legez, hori guztiori desagertu

### “Eskualdeak izango dira, azken finean, eredu berria eraikitze oinarritzko guneak”

egin da. Orain enpresetan enpresariak gaitasuna daukate nahi dutena negoziatzeko: soldata, lanaldia e.a. Langileak enpresarien aurrean bakar-bakarrik lotzen dira. Beraz, argi dago, enpresa eremuan langileek antolatuta eta kontzientzatu behar dutela. Asko eta asko esaten dabilta beste aukerarik ez dagoela, neurri hauek hartu beharreko-

ak direla, ezin dela beste modu batera egin e.a. Ez da egia! Beste modu batera egin daiteke, baina garrantzitsuenak: soldata-murrizketa planteatzen dutenerako, lan-erkubiderik ez dugula diotenerako e.a. horri aurre egiteko oso kontzientzatu egon beharko du jendeak! Horregatik, gure ustez, bai enpresetan baita kalean ere, borroka ideologikoa, momentu honetan, oso

garrantzitsua da. Badagoelako alternatiba! Gauzak beste era batera egin daitezke. Bestalde, enpresa txikietan edo tabernetan, dendetan jarduten duten langile piloa dago, eta horiek ez daukate ezta gaitasunik negoziatzeko ere... Hala, esan legez, gure erroka nagusia negoziazio kolektiboari begirako inizatibak hartzea da, helburu birekin: bata, euskal esparruen defentsa; izan ere, Erreformarekin egin dutena hau da: lehen herrialde mailako hitzarmenak zeuden, eta hortik beherako ezer ere ezin zen negoziatu enpresetan, ilegala zen; orain ez! Orain herrialdeko hitzarmenak desagertu, eta lehentasuna Espainiar Estatu mailakoek ala enpresetakoek dute. Orduan, erroketako bat hori da, benetan; agian sindikalismoan ez dabilenarentzat ulertzen zaila da, baina benetan garrantzitu-

osasun eta hezkuntza arloetan murrizketak egitea hamar mila milioi aurrezteko, eta gero AHT-ren kostua 2 mila miliokoa izatea, eta hori mantentzea. Halaber, arlo instituzionalean, eskatzen duguna eta planteatuko dieguna da: pausoak eman behar dituztela, bai instituzioei baita alderdi politikoei ere, hemen Lan Erreforma ez ezartzea; ez daudelako derrigorturik

### “Egoerari buelta emateko bide bakarra borroka da... Irtenbidea: burujabetza eta erabakitze eskubidea”

ezartzera, ezta enpresetan ere. Neuretzat, gaurko egoera eta 80. hamarkadan lan-gatazka kalean zeudenetako antzekoak dira. Orduan, azkenean, langileen eskubideak borrokatzen eta kalean egonda lortu ziren. Momentu honetan, nik uste, antzeko egoeran gaudela, baina orain desabantaila bat dugu: oro har, gizartearen desideologizazio garaia bizi dugula. Horregatik da aipatutako borroka ideologikoa hain garrantzitsua...

—**Lehen, eskualde mailako eginbeharrak aipatu dituzu, horregaz batera gizarte**

**mugimenduakaz edo eragileakaz alkarlana zelan bateratuko, sustatuko duzue?**

—Alde batetik, horiekin lan egiteko nazio-gunea dago. Ostera, bestetik, guretzat oso garrantzitsua da beste maila bateko lanketa. Esaterako, Greba zela eta, berori prestatzeko, aurrekoetan bezala, herri gehienetan greba-batzordeak sortu dira. LABen helburua greba-batzorde horiei

segida ematea da, herriz herri. Gure ustez, greba-batzorde horiek aliantzak eragin eta indartu dituzte, eta horiek dira eragile sozialen eta sindikalen arteko indarrak batzeko bide aproposenak. Argi eta garbi, gure asmoa horiei jarraipena ematea da. Askotan gertatzen zaigu greba orokorra prestatzeko batzen garela, kolore guztietako jendea, eta lan itzela egiten dugula... baina, gero hor gelditzen da kontua. Oraingoan hala ez gertatzea da gure asmoa, eta badirudi herri batzuetan lortuko dugula. Argi utzita greba-batzordeak ez

dituela LABek sortzen, herrietan sortzen dira, beraz, gure asmoa da horietako bakoitzean LABen presentzia bermatzea. Eragile sozialekin lanketa herriz herri egin behar dugula uste dugu. Berriro diot, borroka aurrera eramateko orduan, uste dugu eskualdeak direla gune nagusiak. Gure helburua Euskal Herriko txoko guztietara iristea da, eta egoerari buelta emateko bide bakarra borroka dela pentsatzen duten guztiekin borroka hori aurrera eramatea. Langile-klase osoaren borroka islatu nahi dugu; lana dutenena, langabezia daudenena, pentsiodunenena, ikasleena, denena... Behin eta berriro, bai komunikabideetan baita instituzioetatik ere, ahalegintzen ari direlako langileak elkarren kontra ipintzen, adib.: langabezia daudenak lana dutenen kontra, langabetuei luzatzen dieten mezua delako, sinestarazi nahi dietena, Erreformagaz enplegua sortuko dela; beraz, langabetuek lana dutenei “aurpegitzen” diete ez daitezela hainbeste kexa, haietzako lana sortuko baita e.a. Hori egunero ikusten dugu, eta aurre egin behar diogu... Irtenbide bakarra burujabetza eta erabakitze eskubidea dira; eta horretara goaz! ○

## Krisialdia Uribe Kostan

—**Zuen iritzi zein da eskualdeko egoera?**

—Garai batean eremu industrialia izan zen, orain dela 10-15 urte; bazeuden zenbait enpresa handi, lanpostu asko eskaintzen zituztenak, adib.: Mecanica La Peña, ARN, Westinghouse, Metal Quimica e.a. Baina, industria-sarea desagertuz joan da; gaur egun, 200 langiletik gorako enpresa gutxi daude. Uribe Kostan sektore nagusia zerbitzuena da, %80; industria %19, erainkuntza %1,3 eta lehengo sektorea %0,1. Betidanik, orain gehiago, zerbitzuetan sortu diren lanpostuak prekarioenak dira; aldi baterako bakarrik izaten dira. Aurtengo otsailean Uribe Kostan 2.787 kontratu egin dira, 153

bakarrik izan dira mugagabeak; 2.634 aldi baterakoak, %94,51. Azken horietatik %55 emakumezkoekin eginak. Lehen ere, baina, Erreformarekin eta egoera honetan, gazteak eta emakumezkoak dira kaltetuenak. Ondorioz, Uribe Kostan prekaritate-egoera itzela da! Uribe Kostan martxoan 11.117 langabetu egon dira, 5.722 emakumeak; otsailean baino, hil batean, 128 langabetu gehiago! Gora egingo du! Ostera, enpresa denetan ordezkariarik ez dugunez, bertan industria ez denez sektore nagusia, eta zerbitzuetan enpresa txikiak daudenez (tabernak, dendak e.a.) zaila da jarraipena egitea. Halere, iaz Uribe Kostan enplegu-erregulazioko 69 espediente egon

ziren; horien bidez 645 langile kaleratu zituzten. Horiez gainera, norbanakoen kaleratzeak daude, horiek zenbatzea ia ezinezkoa da, erraztasunik ere ez dute ematen, noski! Bestalde, gure ustez, hartzen diren erabakiengatik... Uribe Kosta, batez ere zenbait herri, inguru turistiko bihurtu (nahi) dute, zerbitzuei begira, bizitegi-gune... Non egiten dute lan Uribe Kostan bizi direnek? Gehienek Uribe Kostatik kanpo! Instituzioetatik hori da bultzatu dena, ez dute bultzatzen bestelako politikarik: jarduera ekonomikoa sustatzeko, gune “industrialagoa” izateko, edo zoruaren erabileraren banaketan lehengo sektoreak lehentasuna izatea e.a.



## Erandio gauean

Takolos elkarteko lagunak gautxori bihurtu eta, eguzkiak agur esan bezain pronto, Erandioko auzo eta kaleetan barrena ibili dira euren herria irudikatzen. Herriko bazter enblematikoenak argazki egin dituzte, herriaren alderdi erromantikoa azalerazteko asmoz. Herria egunez argazkietan ikusten ohituta, argia irauli, eta iluntasunak edozeri emoten dion xarmaz eta dotoreziaz baliatu dira herria beste modu batean ikusteko.

Argazkiak: **Takolos Elkartea**







**Eulalia Abaitua Allende-Salazar** > Euskal Herriko lehen andra argazkilaria

## Iraganeko historiaren irudi-salataria: Eulalia Abaitua Allende-Salazar

XIX. eta XX. mendeetan ibili zen Abaitua hara eta hona argazkiak egiten. Bilbotarrak pertsona eta inguru ugari aukeratu zituen bere obraren protagonista bilakatzeko, horien artean: gure parajeak. Izan ere, eskualdean ibili zen; irudi horien bidez Abaituak atzo, gurean izandako bizimodua erakutsi ahal izan digu.



Bizkaiko Zubia ondotik dabilen sardina-saltzailea. (Argazkia: Eulalia Abaitua / Euskal Museoa, Bilbo)

**Eulalia Abaitua;** horrela du izena gurean lehen emakume argazkilaria izan zenak. Askorentzat, baina, Abaitua ezezaguna da, baita 2.500 irudik osatutako bere obra osoa ere. Zalantza izpi barik, Eulaliak sortutako obrak sekulako ekarpena egin dio herri honen ondare historiografiko eta etnografikoari. Eta esku artean duzun honako hau lan horren aberastasuna argitan emateko saiakera xumea baino ez dira. Emakumea, eta argazkilaria Euskal Herrian XIX. mendean; egiteko samurra ez zuen izan Eulaliak, eta horrek ausarta eta aurrerakoia izan zeneko iritzia ematen digu. Halere, oztopoak oztopo berealdiko lana osatzea lortu zuen bilbotarrak; eta guk, gaur, mende bat baino gehiago geroago, garai horretan murgiltzeko abagunea dugu haren irudiei esker.

### Burgesian jaioa

Abaitua 1853an jaio zen Bilbon, Begoñan, hain zuzen, familia burgesean; ama, Gernikako Eulalia Allende-Salazar zuen eta aita Luis De Abaitua merkataria. Txikitan Bartzelonan ikasi zuen, eta 1871 urtean, Eulaliak 18 urte zituenean, Liverpoolera bizitzera joan zen, bertan ikasten jarraitu zuen, ezkondu zen arte. 1879an oster, Bilbora itzuli zen senarra-

gaz, 8 urte Ingalaterran egin ostean. Begoñan etxea eraiki zuten: P'ino Jauregia. Jada, Abaitua argazkigintzan zaletua zen, eta Begoñako etxeko sotoan argazki-laboratorioa eraiki zuen. Haren

### Abaituaren estatus sozialak bide eman zion argazkigintzan zaletzeko

estatus-sozialak ahalbidetu zion hainbeste maite zuen zaletasuna garatzea, eta hainbat herrialdetan jasotako formakuntzak aberastasun intelektuala ekarri zion. Horrez gain, senideak zein inguru sozialak eskaintako tolerantzia zein errespetua ezinbestekoak izan ziren Abaituak lanagaz aurrera jarrai zezan. Horrela, mundu mailan industria argazkigintza garatu, eta mundu-mailako

lehen argazkilarien lana loratzen ari zen bitartean, Abaituak Euskal Herriko herritarrak eta paisaiak ardatz izan zituen lana sortzeari ekin zion.

### 2.500 irudi

1900 urterako bilbotarrak argazki-kamera erabat menperatzen omen zuen; lehenik eta behin, bere ingurukoei argazkiak atera zizkien: senarra, seme-alabak, besteak beste, izan ziren bere lehenengo irudien protagonista. Gainera, nahiz eta era profesionalean ez lan egin, orduko zenbait teknika erabili zuen; collage teknika edo esposaketa bikoitzaren teknika, berbarako. Etxekoakaz behin praktikatu zuten gero, kalera atera, eta maila eta hainbat eremutako pertsonak eta paisaiak irudikatzen hasi zen. Adierazgarria da, Abaituak ez zizkiela bakarrik hiriko gizon-emakumei argazkiak atera: hara-



Abrako sardina-saltzaileak. (Argazkia: Eulalia Abaitua / Euskal Museoa, Bilbo)

tago baitzihoan bere jakin-mina eta jomuga intelektuala. Hala, Eulaliak baserritarrak irudikatu ez ezik, itsas-gizon eta emakumeak ere irudikatu zituen; herri xeheak, zelanbait, obran sekulako presentzia izan zuen eta. Herritarren aurpegi, keinu zein ikuspegi horiekaz gozatzeko aukera dugu gaur egun; izan ere, Euskal Museoa Eulaliaren obra osoa gordetzeaz gain, haren erakusketako antolatzailerak ere izan da. Horrez gain, Eulalia Abaituaren obra ardatz duten bost liburu argitaratu dituzte; *Senitartea*, *Kresalibaia*

### Euskal Museoak Abaituaren obra osoa gordetzen du

*behinolako irudiak*, *Gure aurreko andrak*, *Lehenagokoen begiratuak* eta *Begoña.1900. Errepublikak eta Santutegia* dira besteak beste, Euskal Museoak Abaituaren obragaz argitaratu dituen liburuetakoz batzuk. Beste hainbat irudi, aitzitik, oraindik ere, klasifikatu barik dago. Liburuak gaien arabera sailkatu dira; Eulaliak hauek landu zituen: itsasadarra, Begoña, familia, baserritarrak, hiritarrak, eta emakumeak.

Lan-eremu horietatik ateraz gero, nekez topa zitekeen emakumeren bat. Hala ere, emakume gehienek bizi zuten erreallitate irudikatzea izan zuen, xedetakoz bat artistak. Hortaz, Abaituak emakumeak baserri-lanak egiten agertzen ditu; emakumeak esnea eroaten, iruten, lurra jorratzen, sardinak garbitzen eta saltzen,

### Emakume baserritarrek sekulako presentzia daukate obran

ura hartzen... Obrari arreta jarritz gero, aise kontura gaitezke goi-mailako pertsonen irudiek bide utzi ziotela herri xeheari, hain zuzen ere, emakume baserritar eta langileari. Emakume batek emakumeari berari, eman gura izan omen zion merezi zuen errekonozimendua; eta hori erdiesteko bide izan zuen argazkigintza. Irudi horiek gaur egunera heldu zaizkigu, eta gure atzoko bizitzaren salatari zintzoenak dira. Eta salatari horiek argitan ematea izan da orriotako hizkien gura eta xede nagusia, beste asko ez bezala, Abaitua herri-oroimenean gal ez dadin. ○



Emakumeak laigaz lurra jorratzen. (Argazkia: Eulalia Abaitua / Euskal Museoa, Bilbo)



**BETIKO**  
IKASTOLA

*Kalitatezko irakaskuntza euskalduna*

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**GAVRKO**



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

## Ahozeru finentzako...

**Nazioen Mundua** herri-ekimenaren **Gazta zati bat** lana **estreinatu dute**



Dokumentalaren egileak protagonistetako batez

**Donostiako** Giza Eskubideen X. Zinemaldiaren barruan, apirilaren 21ean, aurkeztu zuen Goierriko (Gipuzkoa) Nazioen Mundua herri ekimenak sortu duen *Gazta zati bat* dokumentala.

Jon Maiak idatzi du dokumentalaren gidioa, baita zuzendu ere, eta Nazioen Mundua ekimenak eta Pixel Producciones Audiovisuales-ek ekoitzi dute, "aurrekontu xume batekin baina boluntario askoren lanarekin; berriro ere erakutsi dute dena dela posible". Argazki-arduraduna Juantxo Sardon izan da; muntaketa Eriz Zapirainek egin du eta musikaz Xabier Solano eta Zigor Lanpre arduratu dira.

Hala, ia 100 minututan hurrengo batzen du *Gazta zati bat*-ek: "Munduan bere gaztak ezagun egin duen Euskal Herriko herri txiki batean abiatzen da istorio hau. Herritar xume batzuek, Europako indarkeriazko azken gatazka politikoaren zauri eta banaketa guztien gainetik misio handi bati ekingo diote: mun-

duan zer izan erabaki abal izatea. Abentura horrek Europan albiste nagusi bihurtuko diren bi herriren gertakizun historikoen lekuko zuzenak izatera eramango ditu: Eskozia eta Euskal Herria. Letra txikiz idatzitako historia handi bat..."

Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez dagoen dokumentaleko egileek diotenez,

**«Dokumentala Jon Maiak zuzendu du eta berak egin du gidioa ere»**

"...munduan bere gaztagatik ezaguna den Idiazabal bezalako herri txiki batean kokatutako istorioa kontatzen hasi behar zutenak, Euskal Herriaren aldeketa historikoa bildu du". Azaldu dutenez, erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarrikapena modu alai eta baketsuan egin dute beti, ez dira politikariak, herritar xumeak baino, eta bere ideia jendarteratzeko helburuagaz abiatu zuten dokumentala. ○

Info+: nazioenmundua.net

## Johnny Cash-i gorazarre

Kantari estatubatuarren **omenezko** diskoaren **aurkezpen-jaia Leioan**, hilak 19



Jonny Cash artista estatubatuarra

**Beltzeko gizona** legez ezaguna, Johnny Cash hil zenetik zortzi urte igaro ziren iaz; horren albotik, kantari estatubatuarri Euskal Herrian egin zaion lehenengo omenezko diskoa, *Beltza. Bye, Bai, Cash*, plaza-ratu zuen urte amaieran Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak.

*Beltzeko gizonaren* iturritik edandakoaren ordainetan, 20 talde batu ziren haren kanten bertsioak egiteko; horietako batek, Zaramak, omenezko abestia sortu zuen, "Jon & Johnny Cash", txistua, countrya eta aurrakua uztartzen dituen. Diskoan parte hartzen duten gainontzeko taldeak

hauek dira: Vomito, Hysteria, Carniceros del Norte, Porco Bravo edo Morfi Grei, Diaboli Kash, Elenco, Ratzinger, Arbian, Zartako, Hash, Last Fair Deal, Petti, Travelling Brothers eta Los Rotos.

Diskoa ezagutzera emoteko eta kantari estatubatuarri gorazarre egin asmoz, maiatzaren 19an (15:30etik aurrera) aurkezpen-jaia antolatu dute Leioako Udondo Gaztetxean. DJ Nash-ek girotuko du disko azoka txikia, eta iluntzean Carniceros del Norte, Vomito eta Rat Zinger taldeen zuzeneko emanaldiak egongo dira. Sarrerak 5 euro balio du. ○


## diskoak

**Hiltzera goaz**  
Fiachras  
Boniberenea Ekintzak



Bigarren lana da, "10 kantu atera ditugu 2 urtean, ea urtebetean beste 10 egin ditugun" iragartzeaz gain, zera diote: "Ruper Ordorika, Jon Mirande edo Mike Tyson la-koak ikonotzat dituztenentzako diskoa da. 80.eko punk-a ahaztea beharrezkoa dela us-te dugu... Kreatibitate kontu soila da. 20 urtera diskoaz renegatzea positiboa ikusiko genuke, momentuz ez".

**Faxismoaren harra**  
Ufestuek  
DDT



Erratzuko, Baztango punk taldeak 10 urte bete ditu, eta laugarren lana besapean dutela eutsi diote urteurrenari. 10 abestik osatutako hau taldearen lanik rockzaleena dela adierazi dute. Gainera, binilo euskarrian ere kaleratu dute; biniloa eta CDa batera 10 eurotan ipini dute salgai. Info+: <http://wn.com/ufestuek>

**Ez gara hilko**  
Eraso  
Boniberenea Ekintzak



Zazpi urte isilik egon ostean, bosgarren lana kaleratu du Zarauzko taldeak. 12 kantuk osatzen dute metal eta rock diskoa, metal groove pasarteez horniturik. Gogorra, baina garrasi barik, eta gitarra larregi astindu behar barik. Zuzeneko emanaldietan Sergiok gitarra alboratu eta beren-bereri abesteari ekingo dio.

## diskoa > Benito Lertxundi

Egunotan kaleratuko du Orioko bakarariak hamazazpigarren diskoa, *Oroimenaren Oraina* (Elkar). Hamar abestik osatzen dute lana, eta Egurialdia (ETB) saiora Mireia Berenguerek (aspaldi hondarribitartutako katalanak) bidalitako goizalde lainotsu batean Jaizubiako padurei ateratako argazkia aukeratu du Benito Lertxundik diskoaren azalerako. Azken boladan egin legez, ohiko musikari taldea izan du alboan Orioko abeslariak. Dagoeneko, *Oroimenaren Oraina* lana aurkezteko kontzertuen zenbait data iragarri dituzte, besteak beste: maiatzaren 18an Euskaldunan (Bilbo), maiatzaren 19an Kursaallean (Donostia) eta ekainaren 9an Baluartan (Iruñea). Sarrerak salgai daude.

## kontzertuak > Maz zikloa Basaurin

Musika Alternatibo Zikloa (MAZ) egingo dute Basaurin maiatzaren 4, 11 eta 18an eta ekainaren 1ean. Basauriko Social Antzokiak eta hainbat elkarte kulturalak (NuncaMas! kontzertu eragile, Ameba Kultur Elkartea Bidebieta Irratia eta bi fm komunikabideen kudeatzaileak) elkarlanean antolatutako ekimena Basauriko Udaleko Gazteria Arloak finantzatu du. Zikloaren barruan hurrengo taldeen kontzertuak iragarri dituzte: maiatzaren 4an (21:00) Delafe y Las Floren Azules eta Niños Mutantes; maiatzaren 11n (21:00) Nacho Vegas eta The New Raemon; maiatzaren 18an (21:00) Lisabö eta Anari; eta ekainaren 1ean (21:00) Sidone eta Dinero. Sarrera bakoitza: 10/12 euro.

Info+: [www.mazbasauri.com](http://www.mazbasauri.com)

etorri eta ikusi!!

**MORIXA**

liburudenda

Alargorta 8 (Euzko Herria kalegoz bar) Tf. 94 491 48 05 Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu **%50eko** deskontua izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean Tf. 94 430 15 00 (15 eguneko epemuga)

**I**

**Iñaki Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45 Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

## ArgiHizkiak lehiaketa

Martxan da **Argazkietan oinarritutako Testu Labur** lehiaketa, **hilaren 31 arte**

**ArgiHizkiak** Getxon lehenengoz antolatu den euskarazko literatur lehiaketa da; baduelako ohiko literatur lehiaketetatik bereizten duen ezaugarria: gaia proposatu beharrean, argazki-sorta eskaintzen du; horiei lotutako testuak sortu beharko dituzte lehiaketara aurkeztuko direnek.

Ekimen honetarako, euskarak, eta argazkilaritzarako zein literaturarako zaletasunak batu gaituzte antolatzaile garenok: Egizu Getxo Euskaldun Elkarte, Getxophoto ekimena, Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua eta UK aldizkaria. Helburu bi ditugu: batetik, jendea euskaraz idaztera eta irakurtzera animatzea; bestetik, argazkilariak eta euren lana sustatzea, zabaltea. Lehenengo ekitaldirako, jaiotzez getxoztarrak diren zein aspaldi getxoztar-

**«16 urtetik gorako edonork parte har dezake ArgiHizkiak lehiaketan»**

tutako 15 argazkilarirengana jo dugu irudi eske. Hala, testuak hurrengo argazkilarien fotografien gainean sortu beharko dira: Ane Basagoiti, Carlos Terreros, Jose Mari Martinez, Kepa Acero, Oscar Martinez, Peru Urresti, Hodei Torres, Gonzalo Azumendi, Juan Luis Markaida, Konrado Mugertza, Naiara Goikoetxea, Fati-



Info+: [www.egizu.org/literatura/argi-hizkiak](http://www.egizu.org/literatura/argi-hizkiak)

ma Diez, Mikel Martinez de Osaba, Pedro Zarrabeitia eta Jose Ignacio Lobo.

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 31n amaituko da. Gero, Laura Mintegi, Unai Elorriaga, Irati Elorrieta eta Iñaki Frierak osatutako epai-mahaiak kategorია bakoitzeko irabazle bana izendatuko du. Kategoría bakoitzeko (a.-posta elektronikoko bidezko gehienez 100 berbako testuak, eta b.-sms bidezko gehienez 160 karaktereko testuak) irabazleek 300na euro jasoko dute. Horrez gain, argazki bakoitzeko testu labur eta sms onenak aukeratuiko dira; eta argazki-literatura erakusketa egingo da urrian Torreneko aretoan (Algorta). ○

liburuak

**JOSEMARI ITURRALDE**

**FRANTZIAN JE T'AIME ESATEN DUTE**

**Frantzia je t'aime esaten..**  
Jose Mari Iturralde  
Pamiela

Pedro Osesen marrazkiek osatu dute gazte-literaturako Iturralderen lana. Frantziara oporetan, lagunakaz, frantses apur bat ikasteko doan gaztetxoaren ibilaldiak kontatzen ditu; "nonahi, neska morderoa muxu emoteko prest... Baina nola arraio esaten da muxu eman frantsesez?"

**'Kezka bat gutxiago'**  
Urtzi Urkizuren olerki liburuaren aurkezle errozialdia

**Kezka bat gutxiago**  
Urtzi Urkizu  
Maiatz

**Kezka bat gutxiago**  
Urtzi Urkizu  
Maiatz

Orain dela urtebete inguru sortutako poemak batu ditu Lezoko idazle eta BERRIAko erredaktoreak bigarren lan honetan. Liburu 5 ataletan banatuta dago: Hostoei ostikoka; Gizakia gaurko gizartean; Gertuko hartumanean; Indartsu heldu den horri, eta Ene baitan.

[kirola]

**Victor Bilbao** > Pelotazale lagunartea, Plentzia

“Denbora-pasa entretenigarria eta merkea zen: pala-partidak eta pipak”



Victor Bilbao Plentziako pilotaleku itxian

**Ohitura** handiko kirolak dira pilotagaz lotutakoak Plentzian. Lehena izan zen pala, orain 40 urte hasi zen eta ibilbidea ospatzeko argazki-erakusketa egin du Pelotazale lagunartek.

—Pilotari omenaldia egin diozue argazki erakusketagaz?

—Hala da, bai. Azken 40 urtetako irudiak batu eta erakusketa egin dugu pilotalekuko tabernan. Palistez gainera, ikusleak ere ageri dira argazkietan, izan ere, jende asko hurre-ratzen zen pilotalekura partidak ikusten, batez ere udan: denbora pasatzeko modua zen, harreman sozialak egiteko, ezagunakaz elkartzeko eta ondo pasatzeko; denbora-pasa entretenigarria eta merkea zen: pala-partidak eta pipak. Gainera, kirolari oso onak zetozen, palaren urte sasoiak ziren. Herritar gehienek pilotalekuan ematen genituen udako arrastiak eta jendeari oroi-men politak etortzen zaizkio argazkietan ikustean bere burua zein lagunena. Egun, ez dago horrenbesteko ohiturarik.

—Baina orain urte batzuk antzeko era-

kusketa bat egin zenuten, ezta?

—Bai, antzeko erakusketa bat egin genuen duela hogeitau urte edo, pilotaleku itxia inauguratu eta gitxira. Orain beste hogeitau urte igaro dira eta, urteurrena baliatuz, argazki gehiago sartu dugu.

—Ehunka argazki batu duzue, zelan lortu dituzue horrenbeste?

—Pilota-eskolako zuzendaritzako kide

**«Lagun-talde bat hasi zen partidak antolatzen eta, azkenean, ofizial bihurtu»**

baten argazki asko geneukan, batez ere lehen hogeitau urtekoak. Azken hamarkadetakoa, barriz, guztionak dira, baita jendeak utzitakoak ere.

—Eta lagunartek hainbeste urte dauka?

—Ez, baina hogeitik gora bai, pilotaleku itxia egin aurretikoa da. Lagunarte guztiak bezala hasi zen Pelotazale ere: pala-txapelketak antolatzen hasi zen lagun-talde bat eta, azkenean, lagunarte ofizial bihurtu. Pilota-eskola daramagu eta lehiaketak antolatzen segitzen dugu. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa Kizoi moda**



**350 m<sup>2</sup>**  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris, s.l.**

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

**Lourdes Herrasti** > historialaria eta antropologoa

## “Emakumezko denek galdu zuten gerran, alde batekoek zein bestekoek”

**Gerra zibilari eta oroimen historikoari buruzko jardunaldiak garatu dituzte apirilean Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Leioako Udalak. Besteren artean, gerran eta gerraostean emakumeek pairatutakoari buruz aritu zen Lourdes Herrasti apirilaren 26an.**

—Emakumea Gerra Zibilean, gitxi entzundako gaia da, zelan kokatu duzu?

—Gerra Zibilari buruz aritzean bakarrik hitz egin ohi da gizonezkoei buruz: frontera joan zirela eta eurek pairatutakoa. Ez dut alde hori landu; izan ere, emakumezkoek ere gerra pairatu zuten, askotan zeharka, senideak hil zizkietelako, baina beraiek ere izan ziren hilak eta espetxeratuak; emakumezkoentzako kartzelak egon ziren. Gerran beren bizimodua nolakoa izan zen kontatu dut. Gainera, gerraren ondorioez ere aritu naiz. Emakumezko denek galdu zuten gerran, alde batekoek zein bestekoek; izan ere, errepublikaren aurreko egoerara bueltatu ziren: atzerapauso handia gertatu zen soziologikoki. Emakumezkoek berriro gorde behar izan zuten etxean: aurretik lanpublikora ateratzea lortu bazuten, legebiltzarkide gitxi batzuk ere baziren. Baina diktadura frankistak ekarri zuen berriro ere etxean gordetzea, amatasun funtzioan murgiltzea eta senarra zein familia zaintzera mugatzea. Gerratik ez zen bando garailerik atera emakumezkoen artean, denek galdu zuten-eta.

—Gerra 39an amaitu zen, baina gerora nabaritu ziren ondorioak, beraz?

—Bai, noski. Emakumeek unibertsitate-ra hurbiltzea lortu zuten 70eko urteak ziren. Gerora, lan-publikora itzuli dira, poliki-poliki karguak lortzen joan



Irudian, Herrasti (Aranzadi Zientzia Elkarteak utzitako argazkia)

dira, baina oraindik atzeratuta goaz: ez dago banaketa berdintsua, ez lan-postuetan, ez karguetan. Gerraz aritzean, askotan hitz egiten da hildakoez eta espetxeratuak, gizonak gehienak. Baina ikusi behar da zenbat emakume geratu zen alargun, familia aurrera atera beharrek; eta ez da aipatzen! Hildakoen artean

**“Gerraostean atzerapauso handia gertatu zen soziologikoki: emakumeek berriro itzuli behar izan zuten etxera, familia zaintzera”**

emakumezko gitxi egon zen, baina errepresioa pairatu zuten, baita aparteko irainak ere: ilea-moztu publikoki agerraraziz kaskamotz edota errizino-olioa eman beherakoa eragiteko; hau da, barregarri uzteko neurriak. Neurriok ez dira ikusten argazkietan, horiek ere isilduak izan dira. Baina biktimak ez dira bakarrik hil-

dakoak; bizirik iraun zutenek egunero aurrera egitea lortu behar izan zuten ondoren. Hor dago aldea eta zati biak ikusi behar dira.

—Eta gerran zer paper bete zuten?

—Gizonezkoen ordezkokoak izan ziren. Gizonezkoak gerrara joan baziren, emakumezkoek euren lanpostuak bete zituz-

ten; baina ez bakarrik lurra landu eta uzta jaso, lantegietan lanean hasi ziren, horiek mantendu behar ziren-eta. Gainera, erizain ere aritu ziren frontean. Aitzitik, gerra eta gero, emandako zerbitzu horrek ez zuen izan jarraipenik. Emakumezkoak lantegietatik kanporatu zituzten berriro, gizonezkoak sartzeko. ○

**Fredi Paia**

**Josu Intxaurtieta Lemoniz** > euskaltzale

## “Isukitze lehengora buelte da, zitzoski te jungudi dire gure gaztaroko solok”

**Josu Intxaurtieta** Urdulizeko Umaran aldea-etxan jaio zan 1946ko urtarilen 22n. Ama Gorlizeko Mandañu basarriko zan, baie han artekok, amama Luisati eurrera, sikan, Plentziko Isukitzekok zien, Behekokale etxekok, hain zuzen bere. Geur txaletaz josite daon auzo horren ganen in du berba Josuez. Ixen bere, lan handi in deu urduliztarrak bere Isukitzeko famelin sutraik astrakaten.

Plentziko Isukitze auzo Orio, Aia eta Donosti ingeruti etortako kiputzek altxa euden, aurki. Ez iguel etxe duztik, baie bai eurentarigo gehienak. Josuren amama, Luisa Arruti Zumarraga, 1891. urten jaio zan Plentziko Isukitzen. Eta bere aite, Jose Maria Arruti, Kipuzkuko Aiati etor zan alabe okin baino hamabost bat urte lelau, 1875. ingerun.

Kiputz nahie etor zan urte haiten Plentziko itsosadarrera, palatuk iten. Hau de, harri eta lurrez hesik altxaten eudezan, jungudi eta zitzoskik, lukibuztenan moduko ur-landarak betatuten deudezan itsosadar baztarreko lurrek solo bihurtuteko. Itsosoko urek ganezka iten dotsen arlon ezin ezer landa lei. Horitxe saihesteko “txingo” uzeneko atek iminten otsezan harriz te lurrez ineko hesiri. Marek iyeten iaunen uren inderrak berak ixiten iaufen txingok, tope iten otsen tranpe modukok zielakon. Ostera, harresi barruko urburu, manantiel nahi euriteko urek bultzata, arin iriten zien. Barruti kanpora ez euden toperik okiten. Horreetara, urek solotati itsosora urteten iaun. Palatuk ikeran, marek gora iyeten iaunen solok itsoson mailen azpiti lotzen zien. Baie urek ez otsen ganezka iten.

Josuk argi esan oskun zeaiti etor zien



“Lan handi in deu urduliztarrak bere Isukitzeko famelin sutraik astrakaten”

Orio ingeruko jentek hori beharra iten. Ondino bere Orioti Aginagarako biden jon ezkeron, agirin daoz itsoson mailen azpiti

**«Hiru puntedun solo betek emon otsen Isukitzeri “Abanico” uzena»**

daozen solok. Horretarigo beharretan esperientzidunek zien Orio ingerukok Plentzire etor zienerako. Sasoi hatan etortakon apelliduk entzun leitikez ondinoarren ingerukon arten: Arruti, Sistiaga, Arrizabala-ga, Zumarraga...

Gabarratan ibilten zien isukitzetarrak bateti bestera: gortatarako hare igeroten, angulatan nahi karel ingerun ebizen arrainek koisten.

Hare, zubi-barriti surtidorarako biden daon Ardantza ingerun koisten euden, mare

behean egoala aprobeaxata. Gerrate osten, basarriten, goserik ez baie, bizimodu arean estutu zanez, normalen baizen gihautxu kargaten eudezan gabarrok, uretan sartuau ibil eitezan. Arrainek ur azalen ibiltzen zien uger. Eta sustaute, gabarra barrure iten euden salto, gabarrako karela ie ur-azaleko mailetzun oten zalakon, hare karga zala eta.

Angulek koisteko trabes paraten euden gabarra Isukitzekok. Horreetara, angulek tope iten euden gabarragaz eta sano erraz batzen eudezan erredañutera.

Mareri aitute ibiltzen zien Isukitzeko gabarrak. Itsosok gora iten iaunen Plentziti Isukitzera iten euden, itsosbeheran, ostera, Isukitzeti Plentzire. Maren kontra joteko erramu bakarria eukan gabarrak, bere atzeko alden.

Etxe bakotzak bere portu okiten iaun gabarra amarrateko. Baie jon zien denborok. Lastorridunek basarritarrak kanporatu eta palatuk lorrinzen itxi eudezan.



[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



**portu zaharra bar**

Portu Zaharra kalea 35  
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)  
Tf. 94 460 20 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com



**SOLAETXE**

Eguneko menua **Jatetxea** Karta  
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



**La Triangu.**

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



**berezi**

Hanburgesak Ogitartekoak  
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO  
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



**BODEGUILLA BUTRON**

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)  
94 430 01 74  
www.bodeguillabutron.com



**txakoli mota gane tx. txakolina**

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio  
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



**UNAI TABERNA**

C/ Alangobarri n°3 C.P. 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



**CAFETERIA COSMOPOLITA**

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo  
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



**JAN-TOKI ORMAZTEBAL**

Eguneko menua  
Menu bereziak  
Karta  
Erreserbak:  
94 476 2389  
607 21 89 61  
LUTXANA-ERANDIO



**GURE ETXEA taberna**

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



**Asador Cervecera BERANGO**

Oilasko erreak, indabak, txulettoa, arraina trianguetan  
Menu bereziak enkarguz - Gabonetako Menu bereziak  
Pollo asado, txulettoa, alubias, pescados a la brasa - Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad  
EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34



Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37  
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

## Pizza-pintxo

mozzarella eta tomateja jaun eta jabe



Edozein unetan eta azkar egiteko pintxo gozo-gozoa da

**Oraingoan** aurkezten dizugun pintxo Toskana ingurutik ekarritako errezeta dela esan genezake, lasai asko; izan ere, bertako ohiko osagaiak egindako pintxo baitugu ale honetako *pintxotan* atalerakoa. Sarri pizzetan gertatzen den legez, mozzarella eta tomate gordina dira mokadu honetan jaun eta jabe. Pintxo egiteko, lehenengo eta behin, ogi-zekale edo zereal xafla txigortu behar dugu. Ogi txigortua pintxoaren oinarria izango da, horrela, behin hoztuta, haren gainean, mozzarella eta tomate zatiak jarriko ditugu. Tomatea eta mozzarella, gure bi osagai nagusi, xaflatan moztuko ditugu, ondoren, euren artean tartekatzeke, haur da, hainbat geruza mozzarella eta tomate osatuko dugu. Behin zenbait geruza osatuta, labera sartuko dugu pare bat minutuz. Gazta desegin denean, orduan, labetik atera eta pintxoari olio apur bat gaitetik botako diogu. Olioaren ostean ore-ganoa jar diezaiokegu; albaka gustuko izanez gero, hori botatzeko aukera ere badaukazu.

Nahiz eta pintxo horrela egin, erreze-ta honek aukera ematen digu zenbait aldaketa egiteko; barbarako, nahiko garestia izaten den mozzarella erabili beharrean behi-gazta freskoa erabil dezakegu, horrela, antzeko ukitua lor dezakegu. Halere, gure aukera bata edo bestea izan ere, inspirazio italiarragaz egindako pintxoagaz berdina gozatu dugu.

**Osagaiak: zereal-ogia, tomate bat, mozzarella, olio, oregano**



**LAIAK Taberna**



**BASARTENA URDULIZ**

Teléfono: 946 761 128



**JUAN-MARI**

Harategia eta txarkuteria


ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25  
**AREETA**



**KONTXI ZUAZUBISKAR URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!  
Alangobarri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



**TXIBERRI edantokia frontoi partikularra**

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



**Taberna Berri**

Sarrikobaso 4 - ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA  
Ariiluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO


María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobbarri 10  
Tf. 94 491 08 21  
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
Tf. 94 430 22 13      Tf. 94 460 02 88  
GETXO      ALGORTA

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURIMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T. 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T. 400 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Eguzki izpia sumatu eta berehala ateratzen zara eguzkia hartzera, uda iritsi barik eta daborduko beltz-beltz zaude. Utz egizu eguzki printzaren bat laguntzako ere!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Oporretan joango zara baina, sasoi kanpo denez eta hotza dagoenez, hondartzara joateko aukera gitxi izango duzu. Azkenean, hobe herriko igerilekuan, han ura sobera dago-eta.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Egun gogorak datozkizu, azterketetan erabat murgilduko zara, eta ikasteaz gain, beste edozertarako tarte gitxi izango duzu. Animo, pare bat aste baino ez dira!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Aspaldi ikusi bako lagunagaz topo egingo duzu eta daborduko pare bat seme-alaba daukala aitortuko dizu. Lasai egon, asko oso goiz sartzen baita ur handitan...

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Urtebetetzea ospatzeko mozorro festa antolatuko duzu, baina lagunek ez dizute jaramonik egingo, beraz probatu hurrengoa: mozorrorik ez dakarrenak, meriendarik ez!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Egunak daramatzazu erdi-gaixo, baina ez zara gai gelditzeko. Hara eta hona ibiliko zara egunotan, eta azkenean, sukarrak jo. Orduan hartuko duzu deskantsua, baina ohean.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Lehen eguzki egunak argitu bezain azkar joan zara hondartzara, Eba Mirentxu legez. Marradun bikiniarekin soinean daroazu. Segi, segi uretara, ikusiko duzu zer hotz dagoen...

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Ilargi beteak beti aztoratu ohi zaitu eta azken hilean gau osoan ibili zinen exetetik kanpo, nork daki zertan? Laster dator hurrengo ilargia, kontuz ibili, itzaletan galdu barik!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Azkenaldian larri zabilzta diru aldetik eta konponbideren bat topatu guran, lehiaketetara aurkeztea erabaki duzu. Idazlan lehiaketak hasiko zara, baina telebistara ere joko duzu agian...

META



(Irailak 17 urriak 16)  
Hainbeste denbora langabezian, eta azkenean, merezitako lana eskaini dizute, zorionak! Pena hondartzarako tarterik ez duzula izango, dena ezin da lortu bizitza honetan...

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)  
Aste Santuko oporraldian ezin eta orain hasi zara mendira joaten eta naturagaz gozatzen, asteburuetan behintzat. Laster, gainera, txakurtzooa oparituiko dizute elkarregaz txangoak egiteko.

NEGUA




(Azaroak 16 abenduak 20)  
Zer zabilzta azkenaldian, dirua gastatu eta gastatu, txanponek eskuak erretzen dizkizute ala? Dirudunen moduan bizi zara. Tentuz ibili, neguan eguzkiak baino gitxiago irauten baitu diruak...

Kopiak  
SALGAI  
UK aldizkariaren  
bulegoan



Urbe Kostako  
aldizkariaren  
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Zutabe eta lerro guztien baturen emaitzak idatzirik dituzula kontuan izanik, eman egizu animalia bakoitzaren balioa.

					119		=	
					23		=	
					115		=	
					23		=	
					20		=	
110	109	50	15	16				

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Zer ospatu genuen apirilaren 23an?

- Herriko jaiak
- Jesusen jaiotza
- Liburuaren Nazioarteko Eguna

**La Gusana** liburudenda SARIA  
 Tellagorri plaza, Algorta **lagusana**  
 Tf. 94 491 14 12

> Aurrekoaren erantzuna: Lorail  
 > Irabazlea: **Leire Enzunza\***  
 \*deitu telefonoz: 94 491 13 37

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurreko irudia duzu atal barri honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

**Oinutsik** SARIA  
 kontsulta podologikoa   
 Zubigane 4, Sopolana  
 Tf. 94 404 74 20  
 oinutsik@euskalnet.net

> Aurrekoaren erantzuna: Palestinari  
 > Irabazlea: **Jabi Bibanko\***  
 \*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



LUIS MARI BILBAOK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

**UDONDOTARRAK AREETAKO GOBELAN, 1969-11-15**

**Axpe-Udondon** 1939an kokaturiko multinazional baten patroia San Alberto zen, azaroaren 15a. Enpresak zerbait ofiziala antolatzen zuen, baina langileek gurago zuten elektrizitate tailerrekoen eta instrumentazio tailerrekoen arteko futbol partida jokatu, Areetako Gobelan. Urte hartan, azken horiek, argazkikoek irabazi zuten 2-1. Gero bazkaria egiten zuten, gaur arte, urtero, mantendu dutena.

Bestalde, antza denez, enpresa hori oso kutsakorra zen. Udondo erreka kutsatuta zegoen eta Astrabudua/Aketxe/Udondo ziren auzorik kutsatuena; animalien ere eragina zuen kutsadurak, bost urterik bost urtera edo, baserritarrek animaliak (batez ere emeak) aldatu behar izaten zituzten gaixotzen zirelako.

**Zutunik:** Luis Mari Bilbao "Txurine" (arduraduna), Jose Felix Palacios "Chefe", Santiago Hormaza, Jose Antonio Zunzunegi, Teodoro Bastida, Javier Ortiz eta Remigio Angulo (atezaina) (GB).

**Makurtuta:** Jose Manuel Polo, Julio Vegas, Jose Mari Gonzalez "Txema", Jose Antonio Iturri, Manolo Cuesta (GB), Pons eta Juan Val.

**MIREN GOJENOLA** > aktorea

# “Familia eroango nuke irla batera, bestela zer egin han bakarrik?”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **Miren Gojenola**



**Defini egizu zeure burua berba bitan.**

Pertsona alaia naiz eta ez naiz haserretuko erraz, ez dut bronkarik bilatzen; batez ere etxetik kanpora.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Uste dut edozeinetan egingo nukeela, luxua litzateke. Pelikula baten eta Euskal Herrian gitxik parte hartu du, eta protagonista, are gitxiago. Euskarazko film asko egongo litzateke guretzako lana egoteko.

**Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?**

Aktorez gain, abeslari edo dantzari, hirurek daukate lotura. Bestela, interprete ere izango nintzateke, zeinu-hizkuntza ikasten nabil-eta.

**Badaukazu ohitura txarren bat?**

Otorduetatik kanpora jatea, baldin eta hori ohitura txarra balitz.

**Aitor dezakezun bizio bat?**

Ildo horretan, txokolatea eta bizkotxoa.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Neure lanbidez bizi ahal izatea, baita bidaiatzea ere.

**Zer eroango zenuke irla isolatu batera?**

Familia: laguna eta umeak. Bestela, zer egingo nuke neuk bakarrik irla isolatu batean?

**Eguna ala gaua?**

Lasai egoteko nahiago gaua, irakurtzeko eta. Baina gauzak egiteko eguna, gabaz bakarrik ibiltzeak beldur apur bat emoten dit-eta.

**Animalia bazina, zer izango zinateke?**

Txakurra, oso gustuko ditut-eta. Onak eta leialak dira.


**Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?**

Lekitto, eta bertako kuttunena, batez ere, itsasaldea: portua eta...

**Parranda politenak non?**

Nik uste parrandarik politenak ere Lekitton egingo nituela, lagunakaz. ○

**LABURREAN**— Telebistako aspaldiko ezaguna dugu Miren Gojenola lekeitiarra, batez ere ETB1-eko *Goenkale* tele-sailean egindako lanari esker. Gainera, urte mordo eman du Hika taldeagaz, antzerkian; Donostian arte eszeniko-ak ikasi zuenean sortu zuen taldea ikaskideakaz batera. Egunotan baina, Gojenolak Uribe Kosta bisitatu du Ados Teatroagaz batera, Sopelan antzezteko *Wilt, panpina puzgarriaren hilket*a lana: Tom Sharperen eleberririk ezaguna lehenengoz taularatu da, eta euskaraz. Beste egitasmoren bat badarabil buruan, baina oraindino ezin ezer esan...



Begiek zenbat hizkuntza dakizkiten! Begirada artean euren ama hizkuntza erabiltzen dute, gorputz adarrekin kreol hizkuntzaren bat darabilte, hizkien arteko elkartze eta nahasketa kopuru itzela modu jakinean argitzeko gai dira, argien eta ilunen elkarrizketak ere uler ditzakete... Letrekin beste mundu eta egoerak irudika ditzagun laguntzen gaituzte eta irudiak irakurtzeko gai ere badira...

Hizkuntza honietako bi oinarri hartuta, irudiarena eta hizkiarena, ArgiHizkiak lehiaketa antolatatu dugu Getxon. Grezierako *photos* (argia) eta *graphis* (marrazki, idazkera) hitz elkarketak legez, 'argazki' berbak ere oinarri berdintsuak ditu bere osieran. Hala, 'fotografia' edo 'argazki' berbak "argiarekin marraztea edo idaztea" dute jatorrizko esangura. Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien hizkuntzekin jolastea da proposatzen dizueguna. ArgiHizkiak Getxon lehenengo aldiz antolatzen den euskarazko literatura-lehiaketa da; eta proposatzen diren argazkietan oinarriturik egon beharko dute horretara aurkeztuko diren testu laburrek. Garuna lagun, argitu begiak eta ipin egiozuz horri hizkiak!



# ARGIHIZKIAK

## Argazkietan oinarritutako I. TESTU LABURREN LEHIAKETA

### Zeintzuk dira lehiaketaren ezaugarriak?

16 urtetik gorako edonork har dezake parte, Getxon erroldatuta egon ala ez.

Testu bakoitza argazkietako batean egongo da oinarrituta, testua zein argazkiri dagokion adierazi beharko du egileak (argazkiaren edo argazkilaria izenak idatziz).

Bi kategoria izango ditu lehiaketak: **sms bidezkoa** (160 karaktere gehienez) eta **posta elektronikoko bidezkoa** (100 hitz gehienez).

Testuek euskaraz idatzita egon behar dute, euskara batuan edo euskalkietan.

Edozein testu mota onartuko da (prosa, olerkia, bertsoa e.a.).

Testuak aurkezteko epea: **maiatzaren 1etik 31ra bitartean**.

### Argazkiak ikusteko, baldintzak eta oinarriak ezagutzeko?

[www.egizu.org/literatuta/argi-hizkiak](http://www.egizu.org/literatuta/argi-hizkiak)

[argi.hizkiak@gmail.com](mailto:argi.hizkiak@gmail.com) • 619 935 541

